



Antton Garcia
del Molino
kalean

Sasieta:
1999ko
txostena

Xabier Imaz
2. mailako
finalean



Ertaroko azoka Ordizian

 **GARMENDIA**
Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

egiteko prestatuak: komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

Tel-Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA

 **Tejas TBF**



Edozein motatako teilatuak



a g i r r e
j a n t z i d e n d a

s p o r t j a n t z i a k - g a z t e m o d a
z u r e e z k o n t z a r a k o d e n a

ZURE JAZKERAREN DENDA



tel, 943 88 19 97 - Nafarroa Etorbidea, 25 - geltoki aurrean Beasain

press to

Kalitatezko tindategi
azkarra

Kalitate goreneko zerbitzua

- Jaunartze jantziak 1990 pta.
- Ante, napa eta larrua
- Larrugintza gorena
- Alfonbrak
- Manta, edredoi eta ohe-estalkiak
- Sofa zorroak eta gortinak/estoreak
- Traje eta soineko bereziak
- Ezkongaien traje eta soinekoak
- Barbour-aren garbiketa eta koipeztatzea

Hilaren 15etik aurrera
edredoia garbituz gero
poltsa bat opari



☎ 943 16 31 27 Joan Iturralde, 11 BEASAIN

☎ 943 88 45 11 Euska Herria kalea ORDIZIA

Non zer

6 Eskutitzak

7 **TXANDAKA:** Andoni Sarriegi

8 **KATE MOTZEAN:** Naiara Kerejeta

9: Sasieta

10: Antton Garcia del Molino

11: Artzainen pretesta

12: Ertaroko azoka Ordizian

13-23 KRONIKAK

ZEGAMA 13: Argazki lehiaketa. IDIAZABAL 14: Idiazabaldik Idiazabala. ORMAIZTEGI 15: Museo Eguna. SEGURA 16: San Isidro eguna. LAZKAO 17: I.

Garagardo festa. ATAUN 18:

Herri Antzokiaren

inaugurazioa. GABIRIA 19:

Nerea Elustondo garaile.

LEGORRETA 19:

Txirrindulari eskolako

afaria. ZALDIBIA 20: Mendi

elkarteko batzar orokorra.

BEASAIN 21: Ikastolako

irratsaioak. ZERAIN 19: Aste

Santuan bisitari ugari. MUTILOA

22: San Isidro eguna. ORDIZIA

23: Poltsikoko ikuskizunak

24-25: Frantzisko Areso

26: **KIROLAK:** Xabier Imaz

27: **DEBALDEKO**
IRAGARKIAK

28-29: **AGENDA**

30 **FOTO ZAHARRA:** 1973ko idiazabaldarren jaunartzea



Goieniz zine klubak 'Dardara' zikloa emango du maiatzean

Maiatzaren 9an hasi zuen Goieniz zine klubak 'Dardara' zikloa. Maiatzaren 25era bitartean, Hitchcock, Polanski, Lang, Browning eta beste hainbat zinemagileren filmeen jatorrizko bertsiok ikusi ahal izango dira. Zikloaren izenak berak dioen bezala, dardara sortzeko beldurrezko filmak izango dira guztiak.

Sei filma daude karteleran. Maiatzaren 9an Roman Polanskiren 'La semilla del diablo' ikusteko aukera izan zen eta atzo, maiatzak 11, Fritz Langen 'El ministerio del miedo'. Datozen egunetarako izendatuta dauden filmak hauek dira: Maiatzaren 16an, Tod Browningen 'Muñecos infernales'; maiatzaren 18an, G.A. Romeroren 'La noche de los muertos vivientes'; maiatzaren 23an, Jacques Tourneuren 'La noche del demonio'; eta maiatzaren 25ean, Alfred Hitchcocken 'Psicosis'.

Ohi bezala, Beasaingo Usurbe An-

tzokian izango dira emankizunak, iluntzeko 9,30etan.

Abonoak atera dituzte Goienizekoek ziklo osorako, 1.500 pezetan. Saio bakar baterako sarrerak 500 pezetan salduko dira.

Bigarren urtea

"Iaz lehen aldiz egin genuen 'Goieniz Begirada' izenarekin, Zine Klasikoari edo nolabait esateko, gure ohiko emaldietatik kanpo gelditzen diren autore, genero eta garai bateko filmei dedikatutako tarte edo bilduma, beti ere zinearen historian nabarmendu izan diren lanak edo egileak aintzakitatzat hartuz", diote Goienizekoek. Iaz Hitchcocki eskaini zioten zikloa bere jaiotzaren mendeurrena zela eta. Aurtten berriz, fantasiako eta beldurrezko zinearen historian itzal eta garrantzi ukaezina izan duten lan sorta aukera dute zine klubekoek.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierriarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio
Batzardea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Nerea Muruamendiraz, Andoni Sarriegi.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**



Bilkura ixilak

Maiatzaren 7an Jose Luis Lopez de Lacalle andoiandarraren aurka egindako atentatua salatzeako ordulaurdeneko bilkura ixilak egin ziren, udaletxe aurreetan Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak deituta. Iluntzean ere bilkurak egin ziren herri askotan, hilketa salatzeako.

Aberri Egun bateratuak

Udalbiltzak deituta, EAJ, EA eta EHk Aberri Egun bateratuak ospatu zituzten herrietan apirilaren 23an.

Presoak gose greban

Goierriko lau preso gose greban mugagabeen dira, beraien eskubideen alde eta Euskal Herriaren hitza errespetatu dadin eskatzeko. Hiru ordiziarrak dira: Mikel Korta (Alcala Mecon dago preso), Rufino Arriaga (Fleury Merogisen), eta Pakito Mujika (Soto Realen). Laugarrena, beasaindarra, Eyssesen dagoen Josu Lopez. Apirilaren bukaeran hasi ziren hiru goierritarrak baraualdian.



Presoen aldeko bilkurak lantegietan

LAB sindikatuak deituta, Letag, Gerra, CAF eta Indar enpresetan, ostiralero presoen aldeko bilkurak egiten dituzte azken hilabeteotan. "Arduragabekeriatzat jotzen dugu langileok, gure lankide diren euskal errepresaliatuen egoera jasangaitzarekin jolas egitea. Beraien giza eskubideak ez baitira trukerako txanpon. Goierriko LABek bat egiten du orain arte euskal gizarteak egin dituen ahaleginekin eta bultzada sakon bat eman diezaiogun gure herri zahar honek aske izateko duen irriari. Bakoitzak ahal duen tamaina eta lekutik. Euskal Herriaren hitza errespetatua izan dadin, Euskal Herriak hartu behar du hitza", diote LABeko kideek. Gainerako langileei ere deia luzatzen die bilkura hauetan parte hartzeko. Argazkietan CAF eta Guerrako konzentrazioak.



ARRIETA

*Gai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

iñAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak
ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta Ormaiztegiko Iñaki Erosle.

'Baztertuak Euskal Herrian' jardunaldiak Zumalakarregi museoaren eskutik

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoaren sortzaileetarikoa bat izan zen Paloma Miranda zenaren omenez antolatu zen maiatzaren 4tik 6ra, 'Baztertuak Euskal Herrian (XVII-XIX mendeak)' jardunaldiak Donostian. Umezurtzak, bandoleroak, presoak, emagalduek edo behartsuak aztertu ziren adituen hitzaldiekin. Zumalakarregi museokoen esanetan, "azken urteotan historiagileok arreta berezia eskaintzen ari gatzazkio bazterkeriaren gaiari. Ez da harritzekoa, historiagileak gizartearen zati bat garenaz garaian garaiko kezak islatzen baitira gure lanetan".



Latxa Gazta: kalitate goreneko Idiazabal gazta

Maiatzaren 4an Donostiako Kursaal jauregian aurkeztu zen 'Latxa Gazta' etiketa beltza. Gazta produktorearen zati bat adituen batzordeen dastaketa sistema zorrotz baten menpe jarri dute artzainek. Gainerako produktoreentzat eskatu ohi dituzten batzordeen kalifikazioak baino altuagoak eskatzen dituzte era honetako gaztentzat.

Idiazabal izendapenaren barruan 'Artzai Gazta' elkarteak osatzen dute artzainak eta gazta produktoreak direnak. Artzain hauetako zenbaitek kalitate goreneko gazta definitu eta komertzializatzeko helburuarekin 'Zumitz' elkarteak sortu zuten.

Honen emaitza 'Latxa Gazta' da. Kalitate goreneko gazta da eta beste guztietatik bereizteko gorbata baten moduan, diagonalan, etiketa beltza eramango du. Etiketa beltz horren bidez, Zumitz elkarteak artzainek bizimodu tradizionala sustatu nahi dute, milurteko berriaren aldetara egokituz. "Gaur egun teknologiaren, ekonomiaren eta gizartearen izugarriko abailak arriskutan jarri du artzainek beren eskuez egin izan duten artisau erako gaztagintza tradizionala, eta garai berrietara egokitzeko sortu dugu 'latxa gazta' bereizgarria", diote artzainek.



Azkarrek 600 milioitan handituko du kapitala

Maiatzaren 6an, Lazkaoko Udaletxean egin zen Azkar garaio enpresak akzionisten ohiko batzar orokorra. 673 milioi pezetako balioa izango duten 16 milioi akzioen emisioa, kapital anpliazioa egitea onartu zuten.

Crohn eta kolitis ultzerosoak

Hesteetako gaixotasunak dira Crohn eta Kolitisa. Ez dira kutsagarriak ezta hilkorak ere, baina bai oso jasangaitzak. Kronikoak dira bi gaixotasunak. Crohn eta Kolitis Ultzerosen Elkartek hainbat hitzaldi antolatu ditu Donostian, gaixotasun hauen berri emateko. Crohn gaixotasunak ahotik hasi eta uzkie bitartean liseriketa aparatuko edozein zati kaltetu dezake. Kalte gehien heste mehearen azken muturrean eta heste lodian egiten du, ultzerak, estutasunak eta zorne-zorroak eraginez. Kolitis ultzerosoan berriz, heste lodiko barne azalerako mukosa hantu egiten du. Ondorioz, neurri desberdineko ultzerak sortzen dira.

Gaixo hauek dituzten familien elkarteak sortu dira elkarlaguntzarako, hartueman pertsonalagoa lortuz. Gipuzkoan 1994an sortu zen. Maiatzaren 13rako hitzaldia antolatu dute: Arantzazu Ospitaleko Liseriketa-zerbitzuko buru den Jose Ignazio Arenasen hitzaldia, Donostiako ONCEko ekintza aretoan, 19:00etan.

Joseba Beloki

Romandiako itzulian bigarren egin du Joseba Beloki Lazkaoko txirrindulariak. Maiatzaren 5eko erlojuaren aurkako saioa irabazi eta lidergoa lortu bazuen ere, azkenean ezin izan zion eutsi lidergoari.

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazaokoak
Literadunak komunarekin





- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

R gabe ere

Aspalditik nuen buruan idatzi hau eta, egia esan, ordutik hona ez dira gauzak gehiegi aldatu. Orain hilabete gutxi sei-zazpi bat lerro idatzi nituen HABE Aldizkarirako 'Telefonicaren amarrua' izenburupean, eta amarruak bere horretan dirau.

Telefonicaren kabinak erabiltzean bi aukera ditugu gaur egun: diru xehea sartu edo txartela bestela. Diru xehea sartzen dugunean gauzatzen da Telefonicaren amarrua. Noiz? Sarritan ez dugu jakiten zenbat txanpon sartu zirriztuan, eta badaezpada ere 20 durokoa botatzen dugu. Baditugu txanpon txikiagoak ere eskura, baina ez 100 pezeta osatzeko adina inondik ere. Zer gertatzen zaigu? 20 duroko hori gehiegi dela askotan, nahikoa dugula, esate baterako, 40 pezetarekin, eta telefonoa eskegi egiten dugu, 60 pezeta galduz. Beste batzuetan, hor ibiltzen gara elkarrizketak luza eta luza 20 duroko hori xahutu arte, pentsatuz horrela soberako beste 60 pezetak ez ditugula alferrik gastatzen. Baina kontua da berreskura daitekeela ditzosozko 20 duroko sosa. Nola? Telefonoak berak esaten digu 20 duroko horretatik zenbat geratzen zaigun. Eman dezagun, 40 pezetako hizketalditxo egin dugula, eta 60 pezeta ditugula oraindik deia eten nahi dugunean. Beraz, deitu duenak telefonoa eskegi aurretik 40 pezeta sartzen baditu, 20 duroko hori berreskuratu egingo du. Ez du aldea, beste 60 pezeta horiek, galduko Telefonicari musutruk emanda. Nik aproba egin dut hiru aldiz, bitan 20 duroko batekin, eta beste behin 500 pezetako txanponarekin. Eta beti ondo aterada: txanponak berreskuratu egin ditut. Eta 20 durokoa sartu ondoren, erantzungailu

automaticoa azaltzen bazaiagu, Telefonicak diru-kopuru bat jango digu: ba kopuru hori bera sartu zirriztuan, eta 20 durokoa jasoko dugu. Hortxe dago amarrua: jendeak ez dakiela kabinak diru hori itzuli egiten duela.

Telefonicak urtetan eta urtetan monopolioa izan du, eta oraindik ere askok eta askok behar baino diru xehe gehiago sartzen du kabinatan hitz egiteko. Lankideok egunero egunkari mordo ira-kurtzen ditugu, eta inon ez dugu ikusi gai horri buruzko Telefonicak berak emandako berri bakar bat ere. Aspalditxo berri bat azaldu zen erdal egunkari batean, esanez 20 durokoa eskuratzeko, aurretik R letra sakatu behar dela, baina R hori gabe ere, jaso daiteke dirua. Nik neronek lagun batek esanda jakin nuen amarruarena, eta lagunak, berriz, telebistan Kontsumitzaileen aldeko elkarte bateko kide bati entzun ziolako jukutria zertan zetzan. Telefonicak tabernetan dituen telefonoekin ere saiatu nintzen aproba egiten, baina hor ez dago 20 durokoa berreskuratzeko erarik. Ez 20 durokoa, eta pentsatzekoa da, 500eko txanpona ere ez, jakina! Antzeko zerbait gertatzen da Euskaltel-eko telefono-kabinetan ere, ezin dela, behin 20, 40 edo 100 hoggerleko txanpona sartuta, inondik ere eskuratu. Telefonicakoe, horiek itzultzen dute dirua, baina ixilean gorde dute informazio hori. Informazioa bakarrik ez, baita telefonoz deitzen genuenok erabiltzen ez genuen dirua ere, goian aipatutako 60 pezeta horiek. Azken batean, geure dirua!

Jon Imanol Iturrioz (Ordizia)

Zein da zuen benetazko borondatea?

Tamalgarrria izateaz gain, lotsagarria ere bada Ordiziako udaletxeko gobernuan aurkitzen diren EAJ-EA alderdi politikoen portaera, giza eskubideen aldeko batzordea martxan jartzeko orduan eta preso politikoen kolektiboaren oinarritzko eskubideen alde, lan egiteko orduan.

Euskal Preso politikoen gaian, Euskal Herri osoak hitz egin du, erabakia hartu du: Euskal Presoak Euskal Herrira, orain. Eta orain, hain zuzen ere, dagokiguna da, aldeko jarrera hori gehiago aktibatzea, estatuen ukazio eta bortizkeriaren aurrean.

Herriaren ahotsa hain ozenki zabaldu arren, badi-rudi batzuk, gorraizearen ondorioz, ez dutela aldarrikapen hau entzun nahi. Ez dutela euskal preso politikoen eskubideak errespetatuak izan daitezen nahi, eta beraien jokamoldea, badi-rudi, eskubide hauen zapalkuntza politikarekin bat datorrela.

Honen adibide garbia Ordiziako EAJ-EAren aldetik eman den jarreraren aurkitzen dugu. Beraien aportazioa, Giza Eskubideen Aldeko Batzordea martxan jartzeko orduan ez da erabat pasiboa izan, ez. Zerbait egin dute, hots, trabak eta oztupoak jarri batzorde honen operatibitatearen eman ez dadin. Eta horrela izan da, Batzordea bertan behera geratu da.

Lerro hauen bitartez, euskal preso politikoen eskubideen alde borrokatzen ari garen hainbat erakunde ezberdinek, talde politiko hauei aurpegiratu nahi diegu, gai honen inguruan, mantendu duten eta mantentzen duten jarrera ustela, argi utziz, era berean, beraien jokabidearen

ondorioz, preso politikoei pairatzen duten egoera tamalgarrria areagotu egiten dela, maila haundi batean, egoera horren erantzuleak bihurtuz.

Non dago zuen "borondatea" preso politikoen eskubideak errespetatuak izan daitezen lana burutzeko orduan?

Non dago zuen "kopromezu maila", hainbeste aldarrikatzen dituzuen Giza Eskubideak errespetatuak izan daitezen?

Euskal Preso Politikoen eskubideen bortxaketan parte aktiboa hartzen ari zarete. Egoera honen erantzuleak ere bazerate.

Ordiziako Euskal Herriarrok

Lizarrusti ez da zabortegia

Naturari errespetu falta eta "giza-utzikeriagatik" lehen-dik gutxi bagenu, Lizarrustin gertatzen dena oraindik harantzago doa. Autoan eraman eta bertan utzi edo maldan behera botata aurki ditzakegu zabor pilak. Basura poltsak, gorpilak, hozkailuak, garbigailuak, komuneko tazaren bat ere aurkitu izan da.

Zein pertsona katok egin dezake horrelakorik? Ba, dirudienez, askok. Baina Lizarrustin gertatzen dena ez da oraingoa. Urteetan zehar gertatu da hori. Zaborrak eta altzairuak batik bat. Zer egin dute agintariek hori galerazteko edo "atzeratu" horiek harrapatu eta egin dutena ordainarazteko? Eta zer egiten dugu guk? Agian zabor pila ikusirik suminaren suminez, erretako zigarroaren kolilla leihotik bota.

Goierriko AHTren aurkako asanblada



**Ekaitz
Goikoetxea
'Mekola'**

(Goierriko
Bertso Eskolako
ikasle ohia)

Herri Urrats

Loratuz itxaropen
eta esperantza,
festa badator eta
animoak altxa,
Senpere inguruan
urteroko martxa,
pausoka ematen du
herriak urratsa. (bis)

Maiteminaren hatsa
utziz agerian,
eleak mingainean,
ametsak begian,
naturaren altxor den
euskal urtegian,
ito gabe egin nahi
dugu igerian. (bis)

Notaritzak eta euskara (III)

Lehen ere Goierritarra aldizkarian (108. alean, 1997-01-31n eta 144. alean, 1998-10-02an) Notaritzek, Erregistroek eta Artekariek zuten hizkuntz jokabideaz idatzi eta argi eta garbi adierazi nuen, 10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legea bete beharra zuten arren, ez zutela betetzen eta betetze bidean jarritakoan, kostu gehigarriak (berentzat espainierazkoak ez diren lan guztiek kostu gehigarriak baitituzte), bezero euskaldunei ordainarazi nahi izaten zizkietela. Idazlan haietako lehenengoa 10/1982 Legea ez betetzeaz izan zen eta bigarrena berriz Nafarroako kasu batean, Madriliko Justizi Ministerioako Erregistro eta Notaritzetako Zuzendaritza Nagusiak euskarazko dokumentuak ere espainierazkoen prezio berean egin beharraz emandako errekurso-ebazpenaz.

Bigarren hartan adierazi nuen, EAEn ere, bazela helegindako kasuren bat eta kasu hori ere, orain, Madrilan, bezero euskaldunaren alde ebatzia izan da. Hala, 1997an, emakume batek, Tolosako Emilio Navarro Moreno Notario jn.aren Notaritzan, Notario-ahalorde bat euskaraz eskatu zuen, baina euskaraz eskuratzea-gatik (espainierazkoa beti egiten dute halere), itzulpenaren eta orri gehigarrien kostuak fakturan ezarri zizkieten. Emakumeak, legez kanpoko jokabide horren aurka, Iruñeko Notarioen Elkargoan helegitea (errekurso) aurkeztu zuen, baina Elkargo horrek, ohi duenez, 1997-11-25ean, Notarioari eman zion arrazoia kibratze-kontu horretan.

Orduan, Madrilera jo zuen emakumeak eta orain, Justizi Ministerioako Erregistro eta Notaritzetako Zuzendaritza Nagusiak, Zuzendari Nagusiak sinatuta, emandako ebazpena iritsi da eta emakumeari eman diote arrazoia, hots, bezero euskaldunari (aurreko Nafarroako kasuan bezalaxe). Horrek zera esan nahi du: "Euskaldunok, Notaritzetan eta Erregistroetan, edozein dokumentu euskaraz eskatzean, egin egin behar dizkigutela eta gainera espainierazkoen prezio berberean egin behar dizkigutela".

Hori hemen noski, legearen berdintasun-printzipio soil-soila baino ez da eta jakin bagenekien, baina hemen dauden Notario eta Notaritzak erdaldunek, ziria sartu nahi izaten digute eta hainbatetan agian sartu ere egin digute, gezurrezko kontu, aitzakia eta oztopo horiekin euskarazko dokumenturik eska ez dezagun eta euskarazko dokumenturik sor ez dadin.

Beraz, orain badakigu euskaldun guztiok, EAEko eta Nafarroako edozein Notaritzetan, eska ditzakegu euskarazko dokumentuak eta erdarazkoen prezio berean eskuratu behar ditugu. Gainera, Erregistroek ere ez dute erregistratze-izapideak eta gainerako lanak zertan gehiago kobratu. Garaia da euskaldunok Notaritzak guztietan dokumentu guztiak euskaraz eskatzen hasteko.



Andoni Sarriegi



AUSGEGI

Urdaneta, 41
C-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Matematika ala historia?

Historia.

Ingelesa ala frantsesa?

Ingelesa.

Txuletak, jateko ala azterketak gainditzeko?

Bietarako.

Gogoko karrera bat?

Lanbide terapia.

Gorrito duzun gaia?

Matematika.

Gustukoena duzuna?

Lur eta ingurugiro zientziak.

Selektibitatea zertarako?

Beasaingo festak izorratzeko.

San Juan sutan libururik edo apunterik erreko al duzu?

Bai, apunte batzuk erreko ditut.

Liburu bat?

Errebeldeak.

Musika talde bat?

Hertzainak.

Nongo festak dituzu gustokoen?

Lazkaokoak.

Amets bat?

Loteria tokatzea.



Naiara Kerejeta Alustiza

Ikaslea

Euskara txukunean

Baita ... ere / ere bai

Gaurko honetan **ere** lokailuaren inguruan jardungo dugu. Hara, bada: **Ere bai Maite?** Zuzena al da? Ondo esanda al dago? Ez, eta euskal sen apur bat duenak behinik behin, urrutitik antzemango dio hori ez dela euskara. Nola esaten da, ba? **Maite ere bai** edo **Baita Maite ere**.

Arazo askoren iturri da zorioneko **ere** hori. **Ere** lokailuak aurreko hitzari egiten dio erreferentzia, eta esaldia ezberdina izango da **ere** hori tokiz aldatuz gero. Ikus ditzagun adibide batzuk: **Aratz ere eskolara joango da bihar / Bihar ere eskolara joango da Aratz**. **Ere** tokiz aldatzean, esanahia ere aldatu egin dugu. Garbi dago, ezta?

Beste batzuetan, berriz, **ere** bakarrik esatea ez da nahikoa. Hara elkarrizketatxo hau:

- Beñat, zuk mendira joan behar al duzu?

- Bai.

-Eta, zuk, Leire?

- Nik ere mendira joan behar dut. (Halere, normalean, ez dugu horrela hitz egiten, hau da, ez da beharrezkoa berriro dena errepikatzea, eta laburtu egiten dugu). Honela:

Nik ere bai / Baita nik ere / Baita ere / Baita.

Horiek guztiak dira zuzenak, baina inola ere ez beste hauek: **Baita ere nik / Ere bai nik / Nik baita ere**.

Eta, ezezkoak ere, jakina, antzera erabili behar ditugu: **Eñaut ez da futbolera joan. Endika ere ez. Ezta Maialen ere**.

Maizpide Euskaltegia



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Artetsu
kuadroak enmarkazioak
opariak enkarguak



Goierri **KOADRO**ak eta **MARKO**ak saltzen dituen denda bakarra. Eskuz egindako ehunka olio-pintura ereduak. Pintatzaileekin harreman zuzenak ditugu eta gure markoak fabrikatik zuzen-zuzenean datoz.

Gure prezioak ere **laburrak** dira merkatuan.

☎ 943 88 34 32 / 656 73 76 86 ☎
San Inazio, 6 BEASAIN

Sasieta Mankomunitatearen 1999ko txostena

Zaborra gora, birziklapena ere bai

Sasieta Mankomunitateak aurkeztutako 1999. urteari dagokion txostenaren arabera, Goierriin, hondakinen kantitatea nabarmen igo da. Aldi berean, birziklapenaren emaitzak oso onak izan dira. Europako herrialde birzikaltzaileen mailan geundeke.

Hondakinen kantitatea bi arrazoï nabarmenengatik igo zen iazko urtean. Bi bilketa berri hasi ziren iaz: bata, denda eta tailerretan egiten den kartoi bilketa eta bestea lorategietako hondarren bilketa.

Dena den, bi bilketa berri hauek izango ez balira ere, 1998an baino zabor gehiago jasoko zen zabortegian. Joera hau 1995. urteaz geroztikakoa da eta Sasieta Mankomunitatekoen arabera, joera honetan ez da aldaketarik nabaritzen.

1999an, batz bestea, Sasieta Mankomunitateko biztanle batek, urtean 424 kilo zabor sortu zituen. 1995ean 313 kilo sortzen genituen; 1999an baino 111 kilo gutxiago.

Birziklapenean bikain

Birziklapenean marka guztiak hautsi ditu Sasietak. Etxean sortzen ditugun 100 kilotik 20 birziklatu egiten dira eta beste 80ak zabortegian bukatzen du. Enrike Enparantza, Sasieta Mankomunitateko teknikariak zehaztu digunez, "zabor guztia ez da berreskuragarria eta kasu hoberenean ere % 37a beste-



rik ezin da birziklatu. 1999ko datuak esan nahi du, berreskuratu daitekeenaren % 55 ari garela berreskuratzen".

Gaikako bilketa guztiak

hobetu egin dira. Hauen artean dena den, paper eta kartoi bilketarena azpimarratu behar da. "Hobekuntza benetan ikusgarria izan da, batez ere

dendei egiten zaien bilketaren ondorioz. Gipuzkoako Hondakinen Planak 2007. urtera arte ez zuen espero paper/kartoi maila horiek betetzea", dio Enparantzak.

Beiraren kasuan ere, Europako herrialde onenen artean gaude. Aurtengo helburuetako bat da Sasietarentzat, beira bilketa hobetzea.

Ontzien kasuan ere hobekuntza izah da, bai kantitate aldetik, bai kalitate aldetik. Iaz zabaldu zen Goierriko herri guztietara edukinontzi horia eta erantzun ona izan du. Kanpaina berezia egin zen iaz eta helburuak bete dituela adierazi digu teknika-riak.

Espainiako Ingurugiro Ministeritzak 'Plan Nacional de Residuos Urbanos' deituriko plana aurkeztu zuen urtarilaren 5ean. Estatu mailako helburuak zehaztu eta hauek betetzeko egutegiak ezartzen dira bertan. Sasieta Mankomunitatea egoera onean dagoela esan daiteke. Laburbilduz:

- 2002. urtean ezingo dugu biztanleko 441 kilo baino gehiago sortu urtean. Gaur egun 424 sortzen ditugu. Euskadin batzbestekoa ia 504 kilokoa da, estatuko handienetarikoa. "Beraz, helburua betetzeko zaborren sorkuntza jaitxi beharko genuke".

- 2006. urterako 1.000 biztanle baino gehiagoko herri guztietan egon beharko lirateke, beira, papera eta ontzi bilketako edukinontziak. Sasieta Mankomunitateak 1998tik betetzen du puntu hau.

Estatuko Hondakin Plana

- 500 biztanleko, gutxienez, beira edukinontzi bat jarri behar da. Sasietak 370 biztanleko du edukinontzi bat. Paper edukinontzia, 550 biztanleko bat jarri beharko da. Sasietak 285 biztanleko bat dauka. Ontzi edukinontziari buruzko zehaztasunik ez du aipatzen, baina Sasietak 28 biztanleko bat dauka.

- 2001. urtean beiraren % 50 birziklatu beharko da eta 2006. urtean % 75. Sasietan dagoeneko % 70 birziklatzen da. "Helburua bete dezakegu".

- 2002. urterako paper eta kartoiaren % 60 birziklatu beharko da eta 2006. urtean % 75. Gaur egun % 55 birziklatzen da. "Helburua bete dezakegu".

- 2001. urteko ekainerako ontzien % 25a birziklatu beharko da eta 2006. urte-

rako % 50. Gaur egun Sasieta %20tik gertu dago. "Beraz lehenengo helburua betetzea nahiko eskura ikusten dugu".

- 2001. urterako egiten diren bilketa guztien batzbestekoa %19,5ekoa izan beharko da eta 2006.enerako %25. "Sasietan dagoeneko lehendabiziko helburua betetzen dugu eta darabagun bilakaerarekin bigarrena betetzea ere ez dugu zaila ikusten".

- Garbigune berriak eraikitzea ere agintzen du Plan honek. 50.000 pertsonako garbigune bat egotea aurrikusten da. Sasietak badu garbigunea dagoeneko.

- Betetzen zailak dauden arloak badaude dena den. Adibidez, konpostaje, biometanizazio edota berreskuratze energetikoa. Helburu hauek lortzeko estrategiak behar omen dira.

Antton Garcia del Molinok 19 urte egin ditu kartzelan "Ordiziarrei esker nago kalean"

Espainiar estatuko kartzela ezberdinetan 19 urte egin ondoren, apirilaren 14an libre gelditu zen Antton Garcia del Molino ordiziarra. Meniere sindromea gaixotasuna daukalako, 92. artikuluari esker atera dute. Dena den, bi urte eta erdian, hilean behin Martuteneko kartzelara joan beharko du paperak sinatzera. 69 urte ditu eta bera zen euskal preso politikoen artean zaharrena.

Apirilaren 14an, siestan zegoela, esan zioten Martuteneko funtzionarioek Antton Garcia del Molinori, libre geldituko zela. Ezustekoa izan zen ordiziarrentzat. 70 urtera bitartean ez zutela kalera aterako uste baitzuen Garcia del Molinok. Azkenean, 92. artikularekin atera da Antton Garcia del Molino, Meniere sindrome gaixotasuna daukalako, hain zuzen ere.

Ordizian hainbat eta hainbat mobilizazio egin izan da Garcia del Molinoren askatasuna eskatzeko. Ordiziarren esanetan, mobilizazio hauei esker dago gaur egungo egoeran. "Ordizian jendea uste baino gehiago mugitu da. Ezustea izan zen niretzat. Zati handi batean, Castellondik ateratzea eta orain kalean izatea, mugimendu honi esker izan da, bestela oraindik Castellonen egongo nintzen. Guztiei eskerrak ematen dizkiet".

Besteak barruan

Piskana-piskana egunean jartzen ari da 69 urteko ordiziarra. Triste samar ere badago, besteak barruan gelditu direlako. "Gauza bukatu gabe dagoenaren irudipena daukat, ni kalean eta besteak barruan. Ez nago oso konforme".

Kartzelan lagun onak egin ditu. "Barruan daudenak nire familiako kideak dira, lagunak baino askoz ere gehiago. Asko gainera ez ditut gehiago ikusiko. Hainbeste urtean elkarrekin, harreman oso sakona sortzen da", zehaztu digu ordiziarrek.

Sakabanaketa politikaren ondorioak jasandakoa da Garcia del Molino. Carabanchel, Puerto de Santamaria, Herrera, Alcala, Murcia, Castellon, Dueñas, Langraitz, Palencia, Basauri eta Martuteneko kartzeletan egon da. "Castellonen 12 urte egin ditut eta nazkagarria da zentzu guztietan. Beste leku batzuetan gogorragoa izan da, baina Castellonen pertsonaren erabateko suntsiketa egiten dute. Oso kartzela berezia da. Ez dute ezer ematen. Erreduntziarik ere ez dute ematen, nahiz eta lan egin eta ikasi. Zenbait kartzeletan erreduntziak ematen dituzte zinera joateagatik bakarrik. Ni, aurtengo urtarilaren 27ra arte lehenengo graduaren egon naiz, erregimen gogorrean".

Euskal Herrira ekarri zutenean, gauzak bestelakoak izan omen dira. "Hemen dena ezberdina izan da. Umo-



rea, klima, usaina... dena. Nahiz eta ziega barruan egon, nabaritu egiten da hau ezberdina dela. Martutenen hotel batean bezala egon naiz. Nahi nuen lekuetan ibiltzen nintzen eta ondo jaten nuen. Beste leku guztietan oso gaizki jaten da. Generoa ona izaten zen baina sukaldariak txarrak ziren".

Sakabanaketa politikaren helburuek porrot egin dutela dio ordiziarrek, baina sakabanaketari esker, euskal arazoa penintsula osoan ezagutarazi dela dio. "Orain baita Frantziar estatuan ere. Espainiako kartzeletara dispersatu gintuztenean, ez gintuzten ezagutzen ez pertsonalki, ez politikoki".

Etorkizun baikorra

Euskal Herriaren etorkizuna baikor ikusten du Antton Garcia del Molinok. "Ikusiduran aldaketa, oso interesgarria da. Fase baten bukae-

rara eta berri baten hasierara iristen ari garela ikusten dut. Esan liteke, dena ez dela ondo atera, baina lehenengo pausok eman dira. Pentsatzen dut, inoiz ez dela lehen bezala izango. Ezberdina izango da, eta espero dut hobe izatea. Amaierara iristen ari gara eta indar gehiena orain egin behar da. Errazena hastera da, zailena ondo bukatzea".

Presoak gose greba mugagabeen dauden honetan, ordiziarrek oraindik gehiago dauka burua barruan. "Asko sakrifikatu be-

har da kalean jendea mugitzeko. Baina egia esan, ez nuen pentsatuko aurreratu dena ikustea. Asko aurreratu da baina askoz ere gehiago egin behar da", dio. Presoen Solidarioak agurtu nahi izan ditu Anttonek. "Guztiak aho zabalik uzten gaituzte, eta gainera, umorearekin".

Aldaketa handia

Ordizia erabat ezezaguna da go Garcia del Molinorentzat. "Lehen baratzak zeuden lekuan, auzo osoak daude. Mendiak ere aldatu egin dira. Baserriak eta etxeak oso politak daude, berrituta. Gure garaian baserri normalak ziren leku asko, jatetxeak dira gaur egun".

Komunikaziorako teknologia berriek ere txundituta utzi dute Antton. Faxak, ordenadoreak, pisuak... "Martutenen ikusi dut lehenengo ordenadorea".

Aralarko artzainak protestan Artzantzaren egoera normalizatzeko ahalegin berezia eskatu dute

Apirilaren 26an, 'Aralarko artzainak noiz arte mandoan' lelopean protesta egin zuten Aralarko artzainek, Ordiziako azoka berezia zela aprobetxatuz. EHNE nekazal sindikatua oso kezkatuta dago mendiko artzantzak bizi duen egoeraz eta bereziki Aralarkoaz. Gauzak honela, sektore inplikatu guztiei eztabaidarako deia luzatu die artzainek, mendiko artzantzaren baldintzak eta egoera hobetzeko helburuarekin.

Aralarko artzainek azken urte honetan, Enirio Aralarko mankomunitatean eta Foru Aldundian ahotsa eta partehartzea izatea lortu badute ere, Aralarko artzainen lan baldintzak oso motel ari direla aurrera egiten salatu dute EHNEkoek, "honek sektore-rako dakarren etsipenarekin".

Duela urtebete Donostian beste prentsaurreko bat eman zuten artzainek, urtebeteko epean planteamentu serio bat egin zezaten eskatuz Neka-



Ordizian egindako artzainen protesta.

zaritza Sailari eta Enirio Aralarko Mankomunitateari. Horretarako mugimendurik ikusi ezean, protesta ekin-tzak gogortuko zituztela iragarri zuten. "Urtebete bete-tzeaz dago eta bi instituzio hauen aldetik borondate al-daketa bat ikusi bada ere (horren lekuko dira Nekaza-ritza Sailarekin burutzen ari diren bilerak eta Mankomu-nitatean artzainen ordezkari-tza lortzea), oraindik ez dago proposamenik mahai gainean, artzainek egin dutena izan ezik".

Motel

Prentsaurrean emanda-ko datuen arabera, "Aralarren, duela 9 urte arte apenas ezer

egin den. Burutu den apurra ordutik hona egin da: txabo-letara ura eraman, txabolak konpondu... baina oso motel, aurrekontua oso urria izan delako; azken urtean zertxo-bait igo bada ere oraindik oso eskasa izaten jarraitzen du. Nekazaritza Saileko au-rrekontu osotik % 0,75". As-kotan, kudeaketa bera ere au-zitan jartzen dute artzainek, "izan ere artzainek eskatzen dituzten lehentasunak ez bai-

EHNE:

"Aralarren, duela 9 urte arte apenas ezer egin den"

tira kontuan hartzen. Horre-la txabolak konpontzen edo eraikitzen aritzea aurretik bertara iristeko biderik gabe nahiko zentzugabea ikusten da, arazoa ez baita konpon-tzen".

Datu zehatz batzuk azaldu zituzten: "oraindik txabolen %60 konpontzeko dago. Txa-boletara iristeko bideei da-gokienez, gehienek ez dute biderik eta mandoz edo ahal duten moduan ibili behar du-te; kasu gehienetan jeztoki egokirik ere ez dute".

Egoera normalizatu nahian

EHNEk artzainen egoera normalizatu nahi du, "gizar-te osoa aurrera begira dago-enean artzantza ezin da ego-era neolitikoko horretan man-tendu", esan zuen Marta Arizabalaga EHNEko idaz-kari orokorrak. "Garbi dago urteetan geldirik egon denak orain apur hori baino ahale-gin gehiago egitea suposa-tzen duela, gaur egungo beharretara egokitzeko", gaineratu zuen.

Beraz, EHNEk elkarri-zketarako deia luzatu zien sektore inplikatu guztiei, Aralarko artzantzak au-rrera egin dezan plante-a-mentu serioak egiteko.



ikazoka 00 merkatu plaza
hezkuntza eta berrikuntza azoka Maiatzaren 18tik 21era **DURANGO**

ordutegia: ostegunetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara 16:00etatik 20:00etara

igandea 10:00etatik 14:00etara

Aintzinako azoka maiatzaren 13an eta 14an Ordizian

Ordiziak denboran atzera egingo du ertaroko garaietara, Aintzinako azokari ongi-etorria egiteko. Asteburu honetan izango da ospakizuna, maiatzaren 13 eta 14an. 40 bat artisau izango dira, doto-re jantzita, bere lana eta sekretuak erakutsiz. Sendabellarak, egurrak, ukenduak, jostailuak, zilarginak, Nafarroako jakiak... izango dira.

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekita azoka. Kasko historikoan zehar egingo diren desfileekin hasiko dira azokak. Desfile honetan Lazkaomendiko Alarpe zalditegiko zaldiak joango dira. Ordiziako hainbat talderen



ikuskizunak ere izango dira. Besteak beste, musika banda, Laguntasuna Errondaila, Antzerki Taldea, arku taldea... Xakean jokatzeko aukera ere izango da Goitia kalean.

Bi karpa jarriko dituzte Garagartza plaza inguruan. Batean, lau tailer egongo dira: okindegia, luma idazketa, marrazketa eta zeramika. Tailerretan parte hartzen du-

ten gaztetxoek artean, Port Auenturarako bidaia zozketatuko da.

Beste karpa afarirako erabiliko dute, Barrena jauregia txiki gelditu denez. Gaueko 9,30etan hasiko da eta 1.800 pezetagatik, jarraian duzuen menua jateko aukera izango duzue: hestebeteen dastaketa, hojaldrezko tartaleta betetak, salda, oilaskoa, Ordiziako torroiak, ardoa, kafea eta likoreak. Afarian banda, errondaila, antzerki taldekoak eta malabareak izango dira. Sorpresaren bat ere presatatuta dago. Afarira joateko beharrezkoa da garaiko moztroz jantzita joatea.

Idiazabal gazta berria

Apirilaren 26an, Martin Berasategi sukaldariak, estreinatu zuen ofizialki, Idiazabal Gazta berriaren denboraldia. Artzainak eskertu zituen Berasategik, hain produktu ona geureganatzeagatik.



Ogi eta ardoaz gain, sukaldaritzan gazta erabiltzeko aholkua eman zuen sukaldariak. Entsalada, tarta, pasta eta arroza-rekin jateko produktu egokia dela esan zuen.

Jose Antonio Otxandorena

Idiazabal gazta berriaren denboraldi hasierako ekitaldian, artzantzarekin lotura zuzena daukan pertsonak omentzen dira.

Aurtengoan, Jose Antonio Otxandorena nafarra omendu zuten. Artzai Gazta elkartearen sortzailea izan zen Otxandorena eta Jatorrizko Izendapenaren bultzatzaileetarikoa bat.

Erregularitasunaren saria

Idiazabal gazta egiten dutenentzat ere izan ziren sariak. Artisau eran egindako gazta erregularrenaren saria Ordiziako Matias Arsuagarentzat izan zen. Elaborazio handiarena, Araia Gaztandegiarentzat eta elaborazio ertainarena, Malatsa Gaztandegiarentzat.



Azoka arrakastatsua

Artzai Eguneako azoka arrakastatsua izan zen aurtengoa. Eguraldiak ere lagundu zuen eta jende asko hurbildu zen Ordiziara. Trashumantziaren antzezpena ere egin. 2.000 ardi pasatu ziren Ordiziako kaleetatik, jendea adi-adi begira zutela. Garaiak aldatzen ari direnaren seinale da, artaldearen atzetik, kaleak garbitzeko makina pasatzen ikusi baikeen.

Artzantzarekin zerikusi zuzena duten hainbat ekitaldi ikusi zen egunean zehar. Ardi-mozteak, ardi-jezteak, gazta egiteak... Pozik gelditu ziren antolatzaileak egunarekin.

Argazki lehiaketa

San Bartolome jaietako programaren azala aurten argazki lehiaketa baten bidez aukeratu da. Gaia Zegama izango da eta saria 30.000 pezetakoa. Argazkiak txuri-beltzak nahiz koloretakoak izan daitezke. Atera berria edo zaharra izan daiteke. Neurria libre da. Epaimahaiak argazkia bere osotasunean baloratu du, teknika, orijinaltasuna... kontuan hartuta. Azken erabakia Gobernu batzordeak hartuko da. Saririk eman gabe gelditu daiteke.

Sariketara aurkeztutako argazkiak Udaren jabetzan geratu dira, bai saritua eta baita saritu gabeak ere. Udalak hauek edozein kartel, aldizkari e.a.etan erabiltzeko eskubidea izango du. Sariketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Herri Urrats

Maiatzaren 14an Senperen izango den Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du kultur etxeak. Kostua 700 pezetakoa da. Irteera Kooperatiba aurretik goizeko 8,30etan izango da eta 19:00etan. Autobusean lehentasuna herritarrek izango du eta lekuri balego izena eman heinean banatuko da tokia. Gaur, maiatzak 12, eguerdian, bukatzen da izena emateko epea.

Orkatz abesbatzaren kontzertua

Datorren maiatzaren 12an, Orkatz abesbatzak kontzertua eskainiko du San Martin parrokiaren, 20:00etan. Horrez gain, zenbait lehiaketetan parte hartzeko asmoa dutenez, jantzi ofiziala aurkeztuko dute bertan. Parte hartuko duten lehen lehiaketa Arrigorriagako 'Arrigorriaga abeslari lehiaketa' izango da. Beraz, herritarren izenean, zorte on!

San Isidro eguna

Maiatzaren 15a, San Isidro eguna, bazkaria egingo da Ostatur. Bertan parte hartzeko izena maiatzaren 12an bukatzen da. Ostatur bertan egin behar da izen ematea.

Bertsolari gazteekin afaria

Aurten Kasino Elkartean egokitzen da afari hau egitea. Maiatzaren 20an izango da. Izena ematea eta txartelak udaletxean eta liburutegian egin behar da, 1.800 pezeta-ren truke. Kasinoko sukaldari adierazi digutenez, oso afari goxoa prestatuko omen dute. Izena emateko epea, maiatzak 18.

Mugaz muga

Aurten Mugaz Muga 2-3 etaparen egitea pentsatu da. Lehen etapa maiatzaren 21ean

UDALETXEKO OHARRAK

● **San Martin feria dela eta**, egun hau inguruko herri gehiagotan ere ospatzen delarik, herri antolatzaileen artean honako akordio honetara iritsi dira: Zegamako Udala, Beasaingo Udala eta Beasaingo Odolkia Kofradiaren artean akordio bat lortu da, bertan azaroko lehen larunbatean Beasaingo Odolkien azoka antolatua izan dadin beti eta Zegamako San Martin feria, berriz, azaroko 2. larunbatean. Era honetara, bi feria hauek egun berean inoiz ez dira egokituko. Akordio onuragarria dela esan behar bi herrientzat eta batez ere Goierrirentzat.

● **Mendien Publikotasuna** aztertu eta txosten bat prestatzeko asmoz, Udalak Juan Mari Apaolaza Injeinerua hartu zuen bere garaian eta azken bileran beste hilabetez kontratua luzatzea erabaki da.

● **Repsol jarritako gas gordailuaren egonkortasuna** azterlan teknikoa martxan da. Gas gordailuaren kokapena kontuan hartuta Udalak Repsol enpresari egonkortasun teknikoa eskatu zion. Repsol enpresak azterlan honen kostua erdibana egitea eskatu zuen. Udalak, azterlan honen kostuaren erdia onartu du eta azterlan honen ondorioz suertatzen dira obrak Repsolen kontura izango dira.

● **Gida turistikoa martxan**. Udalak Dyca enpresari eskatutako, Udalak argitaratzeko asmoa duen Gida turistiko batean, herritarrek beren publizitate tokia har dezaten gestioak egin ditzan. Gida turistiko hau, herritarren artean banatzeaz gain, Zegamara bisitatzera datozen turistiei ere banatuko zaie. Beraz, gure herria ezagutzera eman nahi duen gida honetan herritarrek (komertziantek, enpresa pribatu...) ere bere burua ezagutzera emateko aukera izango dute. Dyca enpresakoak berehala herriko komertziantek, enpresari eta abarrekin harremanetan jarriko dira. Informazio gehiago Udaletxean.

● **Olaberri auzoan**, Udalak, Lehiaketa Publiko baten bidez, 2.159,47 m²ko lusaila saldu du. Lursail hau 8 zegamarrek osatutako Ugarteburu izeneko Ondasunen Elkartek erosi du. Guztira 7.882.065 pezeta ordaindu da. Lursail honetan 8 etxebizitza egingo dira eta ezinbesteko baldintza 17.000.000 pezetatik beherako etxeak izatea da.

eta gainerako ibilaldia udazkenean. Beraz, aurtengo ibilaldiak egun betekoak izan dira, hau da, goizean abiatu eta eguerdirako etxera.

Mugaz Muga honetan argazki rally bat egitea pentsatu da. Karreteak kultur etxeak

banatuko ditu. Beraz, bertan parte hartu nahi duzuenok izena maiatzaren 17a baino lehen eman beharko duzue, Udaletxean.

Eduarne Albizu

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*

Idiazabaldik Idiazabala

Argentinako Idiazabalek 90 urte beteko ditu irailean. Urtebetetze hori dela eta bi Idiazabalekako ordezkariak beraien arteko harremanak estutzeko lanean ari dira. Ekainean argentinarrak etorriko dira Idiazabala, irailean hemengo ordezkariak joango da bertara. Etorkizunari begira bi herriak anaikidetzeta da helburua.

Miguel Angel Martinato Idiazabalgo alkatea ekainaren 19ko astean etorriko da herrira. Argentinatik adierazi duenez, *"egun horietan zuen herria ezagutu eta irailean bertako ordezkariak Argentinara etorri dadin guztia antolatuko dugu"*. Irailean beteko ditu Hegoamerikako herriak 90 urte. Ospakizun ugari ari dira antolatzen ordurako, *"egun horietan zuen Idiazabalgo ordezkariak hemen izatea nahi genuke"*, dio Martinatok.

Hemengo Idiazabalen ere ari dira irailerako planak egiten. Udaletxeko ordezkariak bat joango da Argentinara. Hala ere herritar gehiagok ere badu bertarako asmoa. Hori dela eta, Udaletik jakinarazi da Argentinara joan nahi duenak Udaletxean horren berri emateko. Antton Irizar alkatearen esanetan,

"talderen bat sortzen bada guztien artean antolatuko dugu bidaia. Joan-etorria behintzat norberak ordaindu beharko du. Oraindik erabat ziurtatu gabe dagoen arren lo-lekua bertako herritarrek eskainiko dute". Irailaren 4an abiatuta, astebate inguruko bidaia izango da.

Argentinako Idiazabal Kordobako probintzian dago, Buenos Aires hiriburutik 550 kilometrora. 1800 biztanle ditu, herrigunean eta nekazal gunean banatuta. Duela 90 urte Idiazabaldik joandako Jauregiartzotarren saldutako lur sailetan egin zen Argentinako Idiazabal. Lur sailak saltzearen truke han egingo zen herriari Idiazabal izena jartzea eskatu zuen Demetrio Jauregiartzok eta hala egin zuten.

Gazta Egun jendetsua

Aurreko urteetako bidetik, Gazta Egunaren hirugarren ekitaldiak jende ugari bildu zuen. Itxura berria eskaini du aurtengo festak. Futbitoan bildu ziren Euskal Herri osotik etorritako artzainak. Bost gune ezberdinetan banatuta egon ziren. Leku berean Zumitz elkarte sortu berriak, "Idiazabal etiketa beltza" motako gaztak izango duen itxura aurkeztu zuten. Itxura bakarrik, *"oraindik ere etiketa beltza eramango duten gaztak egin gabe daudelako"*, zioten elkarteak ordezkariak. Ekainean izango da salgai gazta mota berri hori, eta elkarteak Idiazabalen izango du egoitza.

Urteroko ikuskizunek ere erakarri zuten jendearen arreta, ardi mozte erakustaldia eta gazta egiteko prozesua horren lekuko. Berrikuntzen artean, mami erakustaldiak jendearen interesa piztu zuen. 60 litro esne erabili zituzten Arantxak eta Monsek mamiak egiteko. Denbora gutxi iraun zuten, jendeak berehala probatu eta erosi baitzituen. Mami txapelketak 12 herritar bildu zituen. Kepa Oiarbidek atera zuen lehendabizikoa saria, Maria Jesus Begiristainek bigarrena, eta Miren Urbietak hirugarrena.

Berriak ziren era berean Gazta Egunean Mastin txakurrak eta ahariak, bi itxituretan jarrita, haiek ere ez zuten konpainia faltarik izan. Plaza inguruan jarritako postuek ere harrera ona izan zuten, piparrak, odolkiak, txokolata... poltsa ugari ikusten zen jendearen eskuetan.

Xabier Urteaga

Txan magoa

Kultura Batzordeak eta herriko tabernariak antolatutako emanaldien baitan, Txan magoaren emankizuna izango da larunbatean, maiatzak 13, Odei tabernan gaueko 10,30etan.

Herri Urrats

Kimu Kultur Elkarteak Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du. Goizeko 8etan abiatuko da plazatik. Txartelak Xume eta Odei tabernetan daude salgai 1000 pezetaren truke.



Mediku Konsulta

Astelehenean hasi ziren Mediku etxea berritzeko lanak. Udalak 4 hilabetea lanak bukatuta egotea espero du. Tarte horretan lehen Axari dendak zuen lokalean egongo dira herriko osasun zerbitzuak.

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

943 88 95 83

LAZKAO

Ormaiztegi Museo

Egunean 'Tirabira Ormaiztegin' jokoa haurrentzat

Urtero bezala, Ormaiztegiako Zumalakarregi Museoa Museo Eguna prestatzen ari da herriko umeekin. Berrero ere Museoaren aurrealdean gauzatuko da 'Tirabira Ormaiztegin' izeneko jokoa.

Umeak bi taldetan banatuta (karlistak eta liberalak), herriko plazan barrena ibiliko dira proben bila. Probak talde bakoitzeko "espezialistek" gainditu behar dute: artzainak gazta egin, sukaldariak odolkia, bertsolariak

bertsoa, eta abar. Horrez gain, galdera banari zuzen erantzun beharko diote proba gaindituko bada. Aurtengo gaia Ormaiztegi bera da. Eta partaideek herria benetan ezagutzen ote duten frogatu beharko dute: noiz aipatzen da Ormaiztegi lehen aldiz historian?; zenbat lagun bizi dira gaur egun?; zein herri ditu mugakide?

Proba guztiek gaindituta, altxorraren bila hasiko dira taldeak, hiru pista aurkitu



ondoren kofreetan zer gordetzen den deskubritu arte. Bi kofre daude, gure joko honetan ez baitu inork galtzen.

Nazioarteko Museo Eguna maiatzaren 18an denez, egun horretan -ostegunarratsaldeko lau eta erdietan

ospatuko dugu. Jokoa bukatuta, freskagarri bat hartuko dugu.

Parte hartu nahi duenak, edo informazio gehiago, Zumalakarregi Museora jo dezala.



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

GOIERRITARRA doan jaso nahi dut etxean


Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali

IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 1 eta 2 logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin. 1,4 miloitik aurrera.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ... inguruan.

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Etkez etxeko lana

Adinekoak zaindu eta beren etxeko lanak egiteko 8 herri-tarrek eman dute izena. Zerrendatu diren langileentzat adinekoen beharrei buruzko ikastaroa eskainiko du Ama-goia Muruamendiaraz gerontologa lazkaotarrak. Maiatzaren 22an hasita 14:00etatik 16:00etara egunero arituko dira kultur etxean 16 ordu osatu arte. Ikastaroa doan izango da.

Matrikula musika eskolan

2000-2001 ikasturterako matrikula epea zabaldu da Toberra musika eskolan, hezkuntza musikala edo instrumentuak ikasteko. Ikasle berrientzat (haur nahiz heldu), maiatzaren 23 eta 25ean arratsaldeko 5etatik 7etara. Norbere datuekin batera kontu korrontearen zenbakia eman beharko da.

Ikasketekin jarraitu nahi duten ikasle zaharrek, eskolan bertan emango zaien matrikula orria bete eta maiatzaren 15etik 19ra eraman beharko dute. Informazio gehiago musika eskolaren egoi-

Datorren astelehenean, maiatzaren 15ean, baserri-tarrek ezezik, kaletarrek ere ospatuko dute San Isidro eguna. Arratsalde, buruhandi eta erraldoiak aterako dira herriko txistulariekin. Iluntzean San Isidro eguneko meza kapillan. Ondoren ardo partiketa plazan eta herri afaria trikitilari-er alaitua. Udalak ardoa, mahaia eta aulkiak jarriko ditu eta norberak eraman beharko du jatekoa.



San Isidro eguneko herri afaria plazan izango da.

tzan, beheko eskoletan. Ikasurte amaierako kontzertua ekainaren 15erako iragarri dute.

Xabier Imaz finalean

Bigarren mailako txapelketan, Minguez 13an, Otxandorena 15ean eta Pascual 17an kanporatu ondoren, gaur, maiatzak 12, jokatu du finala Xabierrek Atano III.lean Gonzalezen aurka. Informazio gehiago 26. orrialdean.

Kirol eskolarra

● Saskibaloia: Udaberri sariaren barne, benjamin mixtoak, bihar, maiatzak 13, 10:30ean, frontoi ondoan.

● Mendi irteera: maiatzaren 21ean Urbasara egunpasa. Autobusa izango da, goizeko 8,30etan plazan. Izenak emateko Txetxu Ormazabalekin jarri harremanetan.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Preferentea:** Mundarro 4 - 0 Segura. **Jubenilak:** Segura 1 - 1 Santo Tomas. **Infantilak:** Aizkorri 5 - 1 Oiartzun. Kadeteak kategoriaz jaitsi dira, 2. kadeteetara. **Infantilak 1.** infantiletik ohorezko ligara igo dira. **Asteburuan etxean:** Jubenilak: Segura - Euskalduna. Zapatuan 16:00etan.

Labur-labur

● Santa Kutz egunean beheko barriotan jokatu toka txapelketa Pello Arrietak irabazi zuen. Emakumezkoetan lehena Maite Albisu izan zen. 45 lagunek parte hartu zuten.

● Maiatzaren 7ko, Santa Kutz txirrindulari proba Limpiezas Elurra taldeko Lander Aperribaik irabazi zuen.

● Herri arteko pelota txapelketan kanporatuta geratu da Segura. Hala ere Lazkao-aren aurka jokatu beharko du ligaskan.

● Igande honetan Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Elorri elkarteak. Txartelak Elorripen salgai.

● Erretzeari uzteko ikastaroa pasa den asteazkenean hasi zen. Asteazkenean 18:00etatik 19:00etara elkartzen dira kultur etxean. 6 aste-ko iraupena izango du.

● Liburutegia informatizatzeko ordenagailua erosi du Udalak. Horretarako programa Eusko Jaurlaritzak subentzionatuko du.

Joseba Telleria

Agustin Agirre garaile Urnietan



Lehenengo urteko kadeteen mailan Iberdrola taldean ari den Agustin Agirrek Urnietako txirrindulari proba irabazi zuen, bigarrenari 57 segundu ateraz. Agustinek irabazi duen 4. karrera izan zen igandekoa. Alebinen mailan 2 irabazi zituen (1 kronoeskalada) eta infantiletan kronoeskalada bat.



Antonio Agirrek eta Jexux Mari Intxausti Gipuzkoako binakako txapeldun geratu dira.



Gipuzkoako txapeldun

Bolan, Gipuzkoako binakako txapelketan, Antonio Agirre eta Jexux Mari Intxausti izan dira irabazleak. Olaberrin eta Aian jokatu toka saioetan bakoitzak zortzina botaldi eginda 183 birla jo zituzten. Jokin Izagirrek eta Martxeliño Agirrek 4. postua lortu zuten 173 birla jota. Aiako proban, eguneko botaldia Imanol Agirrek irabazi zuen, 2. Antonio Agirrek egin zuen eta 3. Jokin Izagirrek.

Pasa den asteburuan, Urnietan jokatu zen Gipuzkoako txapelketako 1go jardunaldian, Jokin Izagirre 2. sailkatu zen.

I. Garagardo festa

Maiatzak 18, 19, 20 eta 21 izan dira herriko gazteek festei jarraipena emateko hautatu dituzten egunak. Garagardoa barra-barra dastatzeko egunak izango dira.

Datorren ostegunetik igandera plazako frontoia edaritegi bilakatuko da. Eta edarien artean, garagardoa izango da protagonista nagusia. Izan ere, San Miguel eta Cruz Campo izango dira festa honetako partaideak. Guztira, 15 garagardo mota dastatzeko aukera izango dugu lazkaotarrok, baita Lazkaora hurbiltzen direnek ere.

Arratsaldeko 6etatik 12etara gure herriak festetako giroa berreskuratuko du berriro. 200 pezetatako pitxarra erosi eta garagardo normala (300 pezeta) zein

berezia (400 pezeta) dastatzeko aukera izango da. Dena den, gauzak errazteagatik tike bidez funtzionatuko du garagardoaren salmentak. Baina edariaz gain janaria ere eskainiko da; saltxitxak eta brotxetak.

Herriko gazteen ekimenez antolatutako festa honetatik lortuko diren irabaziaz 2. Gazte Festa antolatzeko zuzenduko dira. Iaz, izandako arrakastaren ondoren, aurten ere esperientzia berdinarekin jarraitu nahi da. Hori da, hain zuzen ere, Lehenengo Garagardo Festaren helburu nagusia. Eta gero, nork daki? Agian festa honek lortuko duen erantzuna Gazte Festarena bezain ona bada, hurrengo urtean ere garagardoa dastatzeko aukera izango da.

Bertso-afaria

Hurrengo ostiaralean, maiatzak 19, Gerriko Txokoan bertso afaria egingo da. Bertara, Aitor Sarriegi, Iñaki Apalategi eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariak joango dira. Afari honetaz gozateko aukera izan nahi duen orok maiatzaren 18a baino lehen eman beharko du bere izena Gerriko taberna zein liburudendan. Afariaren kostua 2000 pezetakoa izango da.

Kultur etxea erakustoki

Bihar amaituko da maiatzaren 3tik Kultur Etxean ikusgai izan den erakusketa; 'Gipuzkoako paisajeak: barrualdea'. Bertan, 40x50 cm.ko 35 markoen bitartez, argazki ibilaldi bat egiten da gure probintzian barrena. Honela, bisitatzeko lekuak aurkitzeko laguntza eskaintzen zaigu edo eta jada ezagutzen ditugunak berriro gozatzeko aukera.

Hala eta guztiz ere, astelehenetik aurrera beste argazki erakusketa bat izango da lazkaotarren eskura: 'Mundua zure ikuspegitik'. Bertan Nazio Batuen 1995. urtean antolatu zuen lehiaketa batean saritutako argazkiak ikus ahal izango ditugu.

1995ean, Nazio Batuen 50 urte bete zituela eta, Ingurugirorako Nazio Batuen Programak, nazioarteko argazki lehiaketa baten deialdia egin zuen, "Mundua zure ikuspegitik" izenburupean.

Lehiaketa honek munduko pertsona guztiak gonbidatzen zituen planetaren eta bertako gizakien aniztasun eta dibertsitatearekin isladatzen zuten argazkiak bidaltzera. Erantzuna zabala izan zen; 153 herrialdeetako 44.039 argazki jaso ziren, horietatik 5.685 profesional kategorian, 33.264 amateur kategorian eta 5.090 haur kategorian.

Erakusketa hau mundu osoan zehar dabil lehiaketako hiru kategorietan saritutako lanak erakusten. Orain Lazkaon ikuszeko aukera daukagu.

2000ko aurrekontua

Urte honetako aurrekontuaren zati nagusia Orobione etxearen eraikuntzara zuzenduko da. Dena den, partida garrantzizkoa aurreikusi da ere, jadanik martxan dauden San Jose inguruko eta Gurutze-Hirigoien-Uhaitz inguruko urbanizazio proiektuetarako. Baita beste zenbait

proiektu konkretu martxan jartzeko ere, besteak beste; Agauntza ibiaren inguruko errehabilitazio lanak aztertzen jarraitzeko, bidegorrien proiektua aztertzeko, 2. Sektoareko guneari inguruko azterketa egiteko, Aleriaren inguruko proiektua burutzeko.

Elordi Garcia

IDIAZABALEN TXALET ADOSATUAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 3 logela.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza, lorategia.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

686 414 901 - 943 450 721



Herri Antzokiaren inaugurazioa

Datorren igandean, maiatzak 14, eguerdiko 12.45etan inauguratuko da Herri antzokia. San Martingo Zelaieta etxeen aurrean kokatua, Ataunek aspaldi honetan zuen hutsune garrantzitsu bat beteko du aurrerantzean. Horretaz jabeturik duela urte batzuk ekin zitzaion proiektu honi. Santi Etxeberria Kultur zinegotziaren esanetan, herriaren kultur ekintzen pizgarri eta herriaren bizitzarako suspergarri izatea du helburu. Hori horre-

la izatearren, kultur adierazpen eta ekimen anitzen zentru izango da antzoki berria. Honela, zinea, antzerkia, kantaldiak... baldintza egoki batzuetan burutu ahal izango dira. Ekimen hauen bideragarritasuna ziurtatzeko, Udalak ekipamenduan esfortzu handi bat egin duela gaineratzen du Santik. Zine eta bideo proiektzioa estereoan izateaz gain, antzerki eta jaialdietarako bi kamerino eta argiztaketa eta megafoni sistema onak ere ja-

ri dira. Eta egonaldia ahalik eta erosoena izan dadin bero-gailuaz hornitu da antzokia. 272 eserleku ditu guztira.

Kanpoko itxuragatik horrenbeste esames sortu dituen eraikuntza hau barrutik eza-gutzearren, Udalak herritar guztiok gonbidatzen gaitu datorren igande eguerdian egingo den inaugurazio ekitaldira.

Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketa

Antzokiari estreinaldia emanez, maiatzaren 19an, ostirala, bertan jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren eskualdeko kanporaketa. Arratsaldeko 3etan, bertso paper lehiaketarekin emango zaio hasieran kanporaketari. 4ak aldera, bat bateko saioa hasiko da. Bat bateko saioan ere bi talde be-

reiztuko dira. 14 urterartekoena bata, 14tik 18rartekoena bestea. Gazteenen saioa taldeka jokatu da. Goierriko taldean hiru ordezkari herritar arituko dira: Aitzol Munduate, Haitz Aierbe eta Oier Zurutuza. Hirurak ere aski eza-gunak, Iban Urdangarinekin batera Gipuzkoako txapeldun izan baitira azken bi urteetan. 14 urterartekoaren saioaren ondorenean hasiko da bigarren taldearen kanporaketa. Bertan izango dugu, aurrean lehendabizikoz, Aldarretako Iban Urdangarin. Zorte on guztioi.

Azkenik esan, kanporaketa honetan sailkatzen diren bertsolariek, datorren ekainaren 2an, Azpeitiko Izarraitz pelotalekuan jokatu den finalean parte hartuko dutela.

Agurtzane Bikuña

Gipuzkoako Herriarteko pelota txapelketa

Joan den igande eguerdian giroa pil-pilean zegoen Auzoeta Udal kiroldegian. Ataundarrek zaldibitarren aurkako partidua jokatzen zuten. Aurreragoko asteburuan zaldibitarrek gailendu zitzaizkien hiru kategorietan. Eta oraingoan ere kanpotarrak nagusitu ziren. Kadeteetan 22 eta 3 zaldibitarren alde eta 22eta 7 jubeniletan. Seniorretan hala ere, ataundarrek nagusitu ziren 22 eta 13.

Partidu hauek 33. Gipuzkoako Herriarteko Txapelketari dagozkionak dira. 21 herrik parte hartzen dute Ataun ere horien artean delarik. Txapelketan hiru kategoria bereizten dira. Kategoria bakoitzean Ataunen ordezkari honakook ditugu. Kadeteetan: Gorka Albisu eta Eñaut Sukia; jubeniletan: Eneko Sukia eta Jon Dorronsoro eta azkenik seniorretan Eneko Imaz, Rafael Zubizarreta eta Zorion Barandiaran.

Ataun F multzoan dago eta goian aipatu Zaldibiz gain, Lasarte izango du aurkari datozen partiduetan. Talde bakoitzak beste bi taldeen aurka etxean eta kanpoan jokatuak partiduetan erabakiko da, bestalde, hurrengo fasera nor pasatuko den.

Pelota eguna eskolan

Pelotarekin jarraituz, ostiral honetan, hilak 12, aurreragoko urteetan bezala Pelota Eguna ospatuko da eskolan. Joan den urtarrian hasi eta atseden orduan, astelehenetik ostiralera, egunero jokatu dituzte pelota partidua azken hiru mailetako neska-mutilek.

Ostiral honetan jokatu diren finaletan honako bikoteok arituko dira lehian: neska benjaminetan: Eluska Aierbe eta Arrate Auzmendi – Enara Almeida eta Rebeca Colado; mutil benjaminetan: Jon Ander Albisu eta Kevin Gomez – Jon Arratibel eta Juan Manuel Fernandez; neska alebinetan: Maialen Sukia eta Sara Santana – Garazi Aierbe eta Maria Arratibel; mutiletan: Unai Arizmendi eta Alan Cid – Harri Herguedas eta Katala Fernandez aurka. Partidu hauek ostiral honetan goizeko 11etatik aurrera jokatu dira. Baina horiek adinako ikusmina piztu-

San Isidro eguna 2000

Urteroko legez, maiatzaren 15, San Isidro egunera-ko Barazki Lehiaketa eta Gazta Erakusketa antolatuta ditu Udalak. Auzoz auzo, urtero txandatuan ospatzen den egun hau aurtengoan San Martinen ospatuko da. Goizeko 11etan hasi eta eguerdiko ordu biak artean izango dira ikusgai herriko barazki eta artzainen gaztak. 12eta meza izango da eta sari banaketa ordu batean. Ondoren bazkaria.

Egun honetako ekintzetan parte hartu nahi izanez gero, honakoak dira bete beharreko baldintzak: Herritarra izan behar da. Barazkiak norberarenak edo herriko lurretan hazitakoak izan behar dira. Gutxienez 5 barazki mota desberdin aurkeztu behar dira. Gazta erakusketan ere herritar orok parte har dezake. Sarietako dagokienez 1go. saridunak 12.000pezeta, 2.ak 10.000, 3.ak 8.000, 4.ak 6.000, 5.ak 4.000 eta 6.ak 2000 pezeta eskuratuko ditu. Aurtengoan ere sari berezia emango da zizarririk hoberenentzat. Ziza sari berezia 8.000 pezeta-koa izango da.

Barazki lehiaketan zein gazta erakusketan parte hartzeko gonbidapena herriko baserritar, artzai zein baratza jabe guztiei luzatzen dizue Udalak. Interesik izanez gero, gaur, hilak 12 baino lehen, parte hartzearen berri eman behar da Udalarekin. Gonbidapena ez da zuzenki parte hartu behar dutenentzat bakarrik, ikustera joan nahi duen ororentzat ere bai. Barazki eta gaztaiez gain gaztaia nola egiten den edota artzai nola nola moztu behar diren azalduko da. Herriko sagardoa ere dastatzeko aukera



Nerea

Elustondo garaile

Osinalde Sariketan

Joan den apirilaren 15ean jokatzen XXIX. Osinalde Sariketa, izen bereko elkartearen, aurtengo kultur astearen barnean antolatua. Beti bezala sei bertsolari arduratu ziren afari oparoaren ondorena bertsoz borobiltzeaz, bertarututako ehun bat afaltiarren gozamenerako: Eñaut Agirre eta Estitxu Eizagirren hernaniarrak, Alaitz Sarasola ordiziarra, Iker Zubeldia zega-

marra, Ekaitz Goikoetxea beasaindarra eta Nerea Elustondo legazpiarra.

Ohiko egitura izan zuen bertso saioak, eta ederrak izan ziren puntuen erantzunak eta batik bat zortziko txikian binakako ariketak, bizi-bizi eta umoretsu eramanez. Kartzelakoan Elustondo irabazlearen lana ere benetan txukuna izan zen, saria eskuratzeko erabakigarria izan zi-

tzaion, aidanez. Orokorrean, saioa puntanekoa izan ez bazen ere maila on xamarrean jartzeko modukoa bai.

Entzuleek ematen duten garaikurra ere Nerea Elustondorentzat izan zen, epaileekin bat etorriz, eta bigarren Iker Zubeldia gelditu zen, egindako jardun politaren adierazle. Gaueko bertsoz onena berriz, Eñaut Agirrek bota zuen.

San Isidro eguna

Baserritaren zaindariaren eguna datorren astelehenean, hilaren 15ean, ospatuko dute herriko nekazariak. Eguerdiko 12etako meza entzun ostean bazkaria egingo dute Ostaturun. Izena emateko aurretik deitu 943 887913 telefonora.

Aimar Maiz

Kronista berria

Ale honetatik aurrera Aimar Maiz izango da Gabiriako kronika idatziko duena. Ez egon zalantzan kontatzeko zerbait duzuenok! Zain izango duzue 943 88 43 02 telefonoaren bostaldean.



Legorretako

txirrindulari

eskolako afaria

Maiatzaren 27an jarri dute herriko txirrindulari eskolan ibilitakoak afaritan elkartzeko eguna. Aulia sagardotegian izango da afaria.

Eskolan parte hartu zuten guztiak, zuzendariak, entrenatzaileak, txirrindulariak..., daude gonbidatuta. Azken batean, zaletu guztiak.

Afarira joan nahi duenak, Olasso, Insausti edo Guadalupe tabernetan eman dezake izena. 943 80 60 11 telefonora deituz ere eman daiteke izena.

Maiatzaren 27an, iluntzeko 8etan, udaletxe azpian elkartzeko zita eginda dago.



*Lere apainketa
mota guztiak
egiten dira*

- Ezkontzako lora sortak
- Eliza eta kotxeen apainketa
- Koroak

Larunbat arratsaldeetan zabalik

☎ 943 88 98 83
Geltokiko kioskoa **ORDIZIA**

VOLVO



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



IBAI-ONDO

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabekoa

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



Mendi elkarteko batzar orokorra

Gailurrerantz K.E.ko mendi saileko zuzendaritzak Oiduegiko bazkide guztiei gogora arazi nahi die, bihar larunbata, maiatzak 13, Zubi-buru elkartean arratsaldeko 4etan ospatuko den batzar orokorrera deituak daudela. Bertan aztertu eta bozkatuko diren gaien garrantzia dela eta, ezinbestekotzat jotzen dute bazkide guztien presentzia.

Bestalde, maiatzaren 21ean Arabako "La Cruz del Castillo" gailurrera mendi irteera izango da. Lagran herri-ritik igo eta Biasteri aldera jeisteko asmoa dago, La Puebla de la Barka-ko bodega txiki batean bazkaldu ondoren Zaldibiara itzultzeko.

UEMA eguna Iruran

Zaldibiako Udaleko Kultura batzordeak maiatzaren 21ean Iruran ospatuko den UEMA egunera joateko gonbitea luzatzen die herritar guztiei. Udalerri euskaldunek osatzen duten mankomunitateak antolaturiko ospakizun hauek parte hartzea garrantzitsua dela irizten dute, kontutan hartuta, azkenaldian erakunde honen aurka izandako mehatxuak.

Herriarteko pilota txapelketa

Maila polita erakutsiz hasi dira herriko pilotariak aurtengo herriarteko txapelketan. Iaz bezala, aurtengo ere,



San Isidro festa

Urtero bezala, igande honetan San Isidro eguna ospatuko da Zubi-buru elkartean. Aukera polita da beraz baserri giroko lagun guztiak festa giroan elkartzeko. Hauxe da egun honetako egitaraua.

12:00etan: Herri meza. Bertsolariak, trikitixa, dantzariak eta eskaintzak.

Ondoren, Patxi Iraola eta Arrubarrango Joxe Mari bertsolarien saioa plazan.

14:00etan: Bazkaria, Zubi-buru elkartean. Menua: arrai zopa, legatza, solomilloa, postrea, kafea, kopa eta purua. Prezioa: 3.500 pza.


Ondoren, bertsolarien saioa eta Ainhoa Agirre eta Aitzol Jauregi trikitilariekin erromeria.

hiru herriz osatutako taldeak egin dira eta Zaldibiari Ataun eta Lasarteren aurka jokatzeko egokitu zaio. Momentuz, Ataunen aurkako kanporaketan erraz nagusitu ziren zaldibitarak, orotara 6 pilota partidatik 5 irabazi ondoren. Orain, hamabost bat eguneko atsedena izango dute eta hurrengo kanporaketara igarotzeko Lasartereko taldearen aurkako partiduetan emaitza ona lortzearekin nahikoa izango da. Animo!

Finalerdia Gipuzkoako txapelketan

Eskolarteko txapelketaren barnean, 5 eta 6. mailako neskek areto futboleko finalerdietara iritsi berri dira. Herriko neska gazte hauek osatzen duten taldea denboraldi oso polita egiten ari dira eta bihar, larunbata 13, goizeko 10etan Beasaingo Antzizar kiroldegian jokatuko duten partiduan finalera iristeko aukera paregabea izango dute Zumaiako taldeari irabaziz gero. Eutsi neskek!

Iñaki Gurrutxaga - Saroi Jauregi



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Beasaingo Ikastolako en irratsaioak Segura Irratian

Hik Hasi, pedagogiako aldizkariak, 2000 urteko apirilaren alean erdiko gehigarria eta Azala eskaini dizkio Beasaingo Ikastolak Segura Irratian astero-astero egiten dituen ordubeteko bi irratsaioei: Txiki-Txoko eta Musika Klasikoaren giltzak izenekoak. Aldizkari honen gehigarrian, Beasaingo Ikastolak lau urteotan aurrera daraman esperientzia honen oinarri eta helburuak ezagutarazten ditu.

Txiki-Txoko irratsaioa, larunbat goizetan 10etatik 11etara emititzen da ikastur-

tean zehar. 5. eta 6. mailako ikasleak dira protagonista nagusiak, nahiz eta tarteka beheko mailako ikasleak ere egiten duten. Irratsaio honetan mota askotako gaiak lantzen dira: sukaldaritza, mundu zabaleko historia, Beasain eta Goierri aldeko historia eta pasadizoak, ipuinak, esaera zaharrak, liburu eta diskoak, biografiak, astean zehar irakurritako berri deigarriak, osasun aholkuak, bidaia...

Musika Klasikoaren giltzak irratsaioa astelehen arratsaldetan emititzen da



2:30etatik 3:30-4:00ak bitartean. DBHko ikasle guztiek hartzen dute parte tarteka, baina nagusiki DBHko 1. mailakoek.

Lehenengo urtean musikari bizitzak aztertu zituzten. Bigarren urtean musikagileak eta hiriak eta nazioak izan zituzten kontuan, era honetan, geografia, historia eta kultura elkar lotuz. Aurtengoan musika eta artearen arteko harremanak aztertzen ari dira: lite-

ratura, pintura...eta musika elkarrengana bilduz. Gainera, orain orkestrako tresnak eta musika klasikoan garrantzia izan dutenen berri ematen ari dira.

Irratsaioak laugarren urtera iritsi diren honetan, ikasle guztiek badakite eta onartua dute irratsaioetara joango direla. Badakite saiatzen badira gero eta irratsaio hobeak egin ditzaketela.

Nenkane Altuna

LABURREAN

24 orduko frontenis txapelketa

Maiatzaren 13 eta 14an jokatu da I. 24 orduko frontenis txapelketa, Kiroldegian, Injeneritza ikasleek antolatuta.

Saskibaloiko neska kadeteak finalaurrekotan

Oso emaitza onak lortzen ari da, Beasaingo Ikastolako neska kadeteek osatzen duten saskibalo taldea. Bihar, maiatzak 13 jokatu dute final-aurreko partida Santa Teresa taldearen aurka Donostiako Mons Polikiroldegian eguerdiko 12etan. Apirilaren 8an, Donostiako Belen taldearen aurka irabazi ondoren lortu zuten partida hau jokatzeko txartela.

36. Argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkartek, Udalaren babesarekin batera, 36. Argazki Lehiaketa antolatu du. Lanbidez argazkilariak ez diren zaletuek bakarrik izango dute parte hartzea. Lan guztiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu behar dira eta egile bakoitzak, bost argazki aurkeztu ditzake. Aurrez inon saritu gabeak izan behar dute lanek. Argazkien neurria, teknika eta aurkezteko moduaz askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 X 40 zm.ko kartoiez sendotuta. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 19an bukatuko da eta Argizpi Elkartera edo Aizkorri Mendizale Elkartera bidali behar dira. Sari banaketa ekainaren 3an 19:00etan, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan izango da. Lehen sarituak 25.000 pezeta eta garaikurra eskuratuko ditu, bigarrenak 15.000 pezeta eta hirugarrenak 10.000 pezeta.

Musika Eskolan izena emateko epea zabalik

2000-2001 ikasturtean Musika Eskolan izena eman nahi duenak epea zabalik du. Jadanik ikasle direnek, maiatzaren 17a baino lehen eman beharko dute izena eta ikasle berriek berriz, maiatzaren 19tik 31 bitartean izango dute aukera. Orduetgia honokoa da: astelehen, asteazken eta ostegunetan, 15:00-19:00etara eta astearte eta ostiralean, goizez, 9:00-13:00 bitartean. Argibide gehiago 943028105 telefonoan duzue.

Apirileko Feria

Asteburu honetan, Sevillako apirileko Feria ospatuko da Beasainen. Loinazko San Martin plaza Andaluziako giroaz apainduko da. Bihar larunbata, eguerdiko 12:00etan emango zaio hasiera festari. Arratsaldeko 15:00ak bitartean, Sueño de Andalucía dantza taldea San Ignazio kalean zehar ibiliko da sebilanak dantzatzeko. Monika Narbaizaren dantza taldea, 17:30etan izango da sebilanak dantzatzeko. Erroziera meza ere egingo dute Andra Mari Zeruratuaren Parrokian 19:00etan. Mezaren ondoren berriz, Txirigoten talde batek, Andaluziako umorea ikusteko aukera emango digu Plazan. Al Andalus dantza taldea izango da ekitaldi honi giroa jartzen. Sueños del Sur dantza taldeak eskainiko duen dantzaldiak emango dio amaiera larunbateko egunari. Igandean egun osoan zehar dantzaldiak izango dira. Mareta Brava eta Monika Narbaizaren dantza taldeek eskainiko digute ikuskizuna. San Ignazio kalean txabolatxoak ere jarriko dituzte eta Andaluziako jaki desberdinak dastatzeko aukera izango da.

Aste Santuan bisitari ugari izan dugu herrian

Aste Santuko oporrak garai ederra izaten da alde batera edo bestera ibiltzeko, batzuk kanpora joan eta besteak beste lurralde batzuetatik hona etorri edota hemen bertan geratzen direnak egun hauetan leku eta gauza ezberdinak ikusteko aprobetxatu ohi ditugu.

Izan ere, egun hauetan jendea izugarri mugitzen baita. Zeraingo Turismo bulegoko datuen arabera gure herrian 1.013 bisita izan dira oporraldi hauetan.

Jende gehiena Euskal Herrikoa izan da, baina kataluniarak ere ugari etorri dira, baita madrildarrak ere. Atzeritarren batzuk ere bisitatu

gaituzte, besteak beste kaliforniar batzuk.

Mendi irteera

Maiatzak 14, igandea eta Kultur batzordeak antolatuta mendi irteera izango da. Aurtengoan herri mugan ibilaldia egiteko asmoa dago, Zerainek, Mutiloa, Legazpi eta Zegamarekin dituen mugak ikusteko. Ibilaldi hau garai bateko elizbide eta kaltzadatik egingo da.

Ibilaldi honen iraupena 4,30-5 ordukoa da. Goizeko 8etan herriko plazatik irtengo da. Ibilaldi osoa oinez egin nahi ez duenak beste aukera bat izango du, goizeko 9etan plazan irten eta kotxez

Hitzaldiak

Aurreko urteetan bezala aurten ere hirugarren adinekoentzat hitzaldiak antolatu ditu Ongizate sailak. Hitzaldi hauek maiatzaren 23an, 30an eta ekainaren 6an arratsaldeko 4,30etan, kultur etxean izango dira. Hizlaria Amagoia Muruamendiaraz izango da.

Aurtengoan aukeratu duten gaia Elikadura eta Osasuna da, bertan gai hauek jorratuko dira: lehen egunean, 'Elikadura osatua eta orekatua, jan eta gozatu'; bigarren egunean, 'Elikadurak osasunarekin duen zer ikusia, jan neurri bereziak'; eta hirugarren egunean, 'Elikaduraren gora-beherak, gizentasuna, anorexia eta bulimia'.

Hitzaldi hauen helburua, helduen bizitza kalitatea hobetzea izaten da.

Aizpurura joan, hemen oinezkoekin bat egin eta denak elkarrekin jarraitzeko.

Bukaeran Liztormendi elkartearen hamaiketako izango da.

Kontzertua

Zegamako Tobera Musika Eskolako ikasle diren 12 haur eta gazte zeraindarrak, maiatzaren 18an, ostegunean arratsaldeko 6etan, kultur etxean eskainitako kontzertua entzuteko aukera izango da.

Tobera Musika Eskola

Tobera Musika Eskolan ikasi nahi baduzu 2000-2001 ikas-

turtean matrikula egiteko garaia iritsi da. Matrikula orria bete eta Hizkuntza Musikaleko irakasleari eman behar diozu maiatzaren 15etik 19ra bitartean.

Musika tresna bakarrik ikasten ari bazara, zure irakasleari eman behar diozu maiatzaren 15etik 19ra bitartean. Jarraitu behar ez duten ikasleek irakasleari adierazi beharko diote epe berdinean.

Ikasle berrien matrikulak maiatzaren 23 eta 25ean, arratsaldeko 5etatik 7etara egingo dira.

Mari Flor Mendizabal

San Isidro, baserritarren eguna

Maiatzaren 15ean, aspaldiko ohiturari eutsiz gure herriko baserritarrak beraien eguna ospatzera bilduko dira. Arratsaldeko 8,30etan izango dute meza eta ondoren mahaia- ren inguruan bilduko dira Ostatuan, egunak merezi duen bezala afari ederra egiteko. Afarirako izena Ostatur eman behar da.

Eskulan ikastaroaren amaiera

Urtarrilean hasita hamahiru lagunez osatutako taldea, eskulan ikastaroan ibili da herriko kultur etxean. Gantxiloa, bolilloak, pintaketa, saskigintza, bainikak egiten eta makramean aritu dira besteak beste. Lan ikusgarriak atera omen dira eta espero



dezagun San Pedro jaietan hauek ikusteko aukera izatea. Oso gustora ibili dira hilabeteotan, ikasteaz gain elkarrekin egoteko aukera ere ematen baitzuten juntaizo hauek. Ikastaroari amaiera ona emateko afaria egin zuten Ostatuan, maiatzaren 5ean. Datorren urtean ea ho-

nelako talde ederra juntatzeko aukera izaten den.

Jaunartzea

Maiatzaren 21ean egingo du Jaunartzea Sutegi baserriko Jon Mujikak. Egun bikaina pasa dezazula Jon, zuk eta zure sendikook.

Iñaki Ugalde

Poltsikozko ikuskizunak ikusteko aukera berriro ere

Maiatzean sartzearekin batera 'Poltsikozko ikuskizunei' tarte berezia egin beharko diegu. Aurten berrikuntzekin datorkigu gainera, udal gazteria delegazioak antolatuta herriko hiru musika talderen eta Beasaingo beste baten saioak ikusteko aukera izango baitugu. Guztiak ere Barrena kultur etxean izango dira.

Aurreko larunbatean 'Animese Martinez' musika taldearen kantuak entzuteko parada izan bagenuen oraingo honetan 'Erga Omnes' taldearen txanda izango da. Gogoan izan ordiziar talde honek grabatu berria duela diskatxo bat Donostiako Pop-Rock lehiaketa irabazi ondoren. Maiatzaren 20an Beasaingo 'Fitter Happier' taldea entzuteko aukera izango da eta maiatzaren 27an, berriro, 'Araujo y los mecanicos' taldea.

Saiook Barrena kultur etxean bertan izango dira, doan, aipatu larunbatetako arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

Guzti horrez gain kafe antzerkiko hiru saio ere izango dira eta hauen berri ere emango dizuegu aurrerago.

Kirol emaitzak

Futbol taldeak asteburu honetan hil ala biziko neurketa jokatu du Urnietan. Irabaziz gero errejional mailako lehen mailara igoko da eta denboraldi hasierako nahiak beteko dituzte.

Saskibaloian, ordea, bestelakoak dira gauzak, azken jardunaldian irabazi arren mailari ezin izan baitio eutsi. Dena den, maila berri bat sortuko ote den susmo eta itxaropenarekin daude saskibaloit taldekoak, honela talde gutxiago jeitsiz eta Ordizia



Ordiziara Plataformak antolatuta Almeria aldera joan zen autobuskada joaneko martxoaren 31n. Bertako kartzelan 95 urtez geroztik legearen arabera kalean egon beharko lukeen Eugenio Irastorza ordiziar preso dago. Plataformako 4 kide kartzelan bertan sartu ziren Zuzendariari eskutitza emateko asmoz, Eugenioren behinbetiko askatasuna eskatuaz. Argazkian Almeriako kartzela atarian pankartarekin bertaratutako hainbat lagun.

aurtengo maila berean mantenduz.

Rugbykoek ere igotzeko itxaropen handiak bazituzten ere agur esan zioten denboraldiari Santanderko talde baten kontrako kanporaketa galdu eta gero.

Poto irratia berriro martxan

Urtebeteko geldialdia jasan arren Poto irratia entzuteko aukera dugu berriro ere. Ostiraleroko 105 FM inguruan sintonizatzea besterik ez duzu Jakintza Ikastolako DBH

3 eta 4ko ikasleek prestatutako saioa entzuteko. Goizeko 7,30etatik 8,30etara lehen saiotxo burutzen dute eta bigarrena, aldiz, arratsaldeko 7etatik gaueko 12ak bitartean. Albisteak, elkarrizketak, errezetak, mahainguruak... denetarik entzun daiteke aipatu irratsaioan.

Ertaroko peria

Artzain eguna ospatu eta gero ertaroko periarri dagokio oraingoan txanda. Honen informazio zehatzagoa 12. orrialdean daukazu.

Aitor Calvillo

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✖ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda** mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- ✖ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto** arazoen elektromedikuntza bidezko tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara.

Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728

Garmendia Otaola 7 behea.

BEASAIN



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

Frantzisko Areso Tolosa (1869-1954)

Lazkaoko musikari ezezaguna

Esaera zahar batek honela dio: "Bertako arbolak lau eta urrutikoak zortzi"; izan ere sarritan ez dugu jakiten bertako berri, baina kanpokoek... Entzun entzuna nuen bai Lazkaon "Patxi" Areso musikaria izan genvela baina egia esan askoz gehiagorik ez, gertuago nituen Aita Donostia, J. Guridi eta beste zenbait euskal musikari baina, F.Areso..., bertakoa urrun eta urrutikoa hurbil...!

Nor izan genuen ba lerro hauetan aipatutako musikaria? Frantzisko Areso Tolosa, musikari eta konposatzaile lazkaotarra zen, "Patxi" Areso izenez ezagutzen eta gogoratzen dute herrian beraren ikasle edo diszipulo izandakoek, eta bera ezagutu zuten herritar gehienek. Bere bizitzaren zati handiena Lazkaon egin zuen eta parrokiako organojole izan zen.

Saturnino Areso eta Dolores Tolosa-ren semea, zortzi seme-alaben artean hirugarrena zen. Bere bizitzako lehenengo urteak Lazkaon egin ondoren, Goinmailako Ikasketak egin zituen Iruñeako Done Mikelen Apaizgaitegian (1890-1891. urtean teologiako lehenengo maila, eta 1891-1892 ikasturtean teologia dogmatikoko bigarren urtea). Hurrengo urtean Gasteiza joan zen bere ikasketak jarraituz, eta teologiako hirugarren urtea egin zuen, Ziriako eta Jose Mari bere bi anaiak ere han izan ziren ikasketak egin.

Bartzelonan

Ondoren, bere ahaleginak musika-prestaketa sendotzera bideratzen ditu eta horretarako Bartzelonara joan zen, E. Morera konposatzaile eza-gun eta espainiar nazionalismo musikari atxikitako



F. Aresoren irudia. 1981. urteko 'Lazkaoko' urtekarian argitaratua.

musikariarekin harmonia eta kontrapuntuko klaseak hartu zituen. Honela bere bizitzako ardatz nagusi bilakatuko den, eta hain gogoko zuen musikaren inguruan aurrerapauso garrantzitsu bat emateko asmo eta gogo biziz.

Berriro Lazkaon

Eskuratu ahal izan dugun informazioari eutsiz, pentsa-

tzekoa da 1902. urtean Lazkaon bizi dela, izan ere urte horretan herriko Udaleko idazkari plazara aurkeztu zen. Dena den, bere musikari lanetan murgildua zebilen orduan ere, eta 1905. urtean, "Orfeo Catalá"-k antolatutako Konposizio Lehiaketara aurkeztu zen "Potius Considerandus est sensus quam modulatio" Gloria Meza -rekin, eta konposizioa II. sariaren akzesitarekin saritu zuten, xoxetan 100 pta.ko saria.

Hurrengo urtean berriro aurkeztu da lehiaketa honetara, urte honetan berriz, "Pro Defunctis" meza hoberearentzako pentsaturiko sarira aurkeztu zuen bere musikallana, eta lehenengo saria lortu zuen, 500 pta.koa.

Musika erlijiosoa eta nazionalismo musikala

Orain arte aipatutakoarekin bere musikari norabidea,



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegia, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

musika erlijiosoaren arloan kokatua dagoela ondorioztatu dezakegu, aipatutako bi konposizioak arlo horretakoak batira, baina ez da hau egi osoa. Areso, konposatzaile bezala, nazionalismo musikaren eta "Motu Propio"-aren belaunaldiko musikaria dugu. Eta bi arlo hauek izango dira bere lanetan isladatzen direnak, euskararekiko maitasuna batetik eta erlijio-tasuna bestetik.

Bere konposizio zerrenda osotara begiratzuz gero, bere obra, hizkuntzari dagokionez, latinez eta euskeraz idatzi zuela ohartuko gara. "Patxi" Areso erlijioari lotua zegoen eta hori agerian gelditzen da noski; bai bere konposizioei erreparatuz, baita bere ikasketak gogoratuz. Aipamen moduan ere esan dezakegu 1928. urtean Gasteizen ospatutako "IV. Musika Sakratuko Kongresu Nazionala"-ean izan zela.

Euskal kultura eta euskara

Aresok euskal kultura eta euskararekiko interes eta kezka handia izan zuen, eta EAJkoa izan zen. Honen ondorio edo, bere musikalanetarako hizkuntza euskara izan zuen eta bere musikala-

netan euskal soinu edo sena isladatzen saiatu zen.


Lazkaon bizi izan zen urteetan beraz, musikari, parrokiako organojole eta nazionalista izan zen.

Gerra Zibila

1936an, Gerra Zibilarekin gauzak nahasten direnean, Lazkaoko musikaria E.AJ.-koa izanik, eta gerraren ondorioak kontutan izanik, "Patxi" Aresok udalarekin zuen lotura etenik gelditzen da: "...F. Areso Tolosa musika eta kantuko maixua: Jaun honek Eusko Alderdi Nazionalista desegin arte taldeko kide izan dela azaldu duenez... Udalak kargugabetzea erabakitzen du..."

'Meza berria'

Herritarrek seguruenik gehien gogoratzen duten data, 1942. urteko "Meza Berria" rena da, garai haietan solfeoeko klase batzuk ematen zituen eta parrokiako organo eta koroaz arduratzen zen. Joan Jose Garmendiaren lehenengo mezaren ospakizunerako, koruko partaideen artean ohitu kantariez gainera, Lazkaoko Beneditarren Monasterioan ikasten ari ziren tripleak izan ziren. Dirudienez jendeak gehien gogo-



ratzen dituenak gertaeraren inguruko pasadizoak dira meza bera baino gehiago.

Bertan abestutako konposizioaren kopiari erreparatuz, "1905. urtean saritua izan zen Meza bera dela ohartzen gara. Urteak pasa ondoren beraz, izenez "Meza berria" bezala ezagutu izan duguna musikariak egun horretarako moldatu zuen "Lehengo Meza" genuen nonbait

Zailtasun ekonomikoak

Bere bizitzako azken urteetan, agurea zen, eta ekonomi zailtasunetan jarraitu zuen. Urte haietan bere arreba Sabinaren laguntza eta babesa izan zuen, eta bien harremana zenbait lazkaotarrek ongi gogoratzen dute oraindik ere.

1951. urtean etxea saldu beharrean aurkitzen dira eta hiru urte geroago, "Patxi" Areso, 1954ko apirilaren hiruan miokarditis batez hil zen.


Konposizio gutxi mantendu dira

Zoritarrez, agure erre-txin eta zakar bezala deskribatzen den musikariaren konposizioen artean gutxi batzuk besterik ez dira mantendu, berak argitaratu zituen obrak, sarituak izan ziren Mezak eta musikariak armonizatutako kanta pare bat edo...

Dena den oraindik ere zenbait lazkaotarrei "Soinu ederrak entzuten dira..." kantaren doinua arin datorkie burura, baita "Alaitasun handia..." Olentzero kantaren melodia. Agian, izan zen musikariaren oroimena herritarretan bizi dirau, eta ondorengoek jaso dezaten zain... "...ez ahaztu, zeurea zaintzen..."

Nerea Muruamendiaraz Aranburu
(Nafarroako Unibertsitate
Publikoko irakaslea.
'Frantziko Areso Tolosa'
euskal etnomusikari berreskuratua'
liburuaren egilea.
VIII. Gerrikolkerlan-sariketan
saritua.)

URBITARTE sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

TIENK AHOLKULARITZA
Elosegi, 16
943 16 23 93
LAZKAO

Aholkularitza juridikoa,
fiskala, laborala,
kontablea...

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak
943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



Xabier Imaz segurarra

2. mailako buruz burukoaren finalean

Gaur, maiatzak 12, gauean, Donostiako Atano III. pilotalekuan jokatu du Xabier Imaz segurarrak, bigarren mailako buruz buruko pilota txapelketa. ETBk zuzenean emango duen partiduan Sebastian Gonzalez azkaindarra izango du arerio. Irabazi ala galdu, finalera iristearekin gustura da segurarra. *"Baina irabaztera joan beharra dago"*, dio.

- Zein itzaropen duzu finalerako?

- Onak. Behin finaleraino iritsita, irabaztera joan beharra dago. Biok joango gara irabaztera, baina biok ezin irabazi.

- Favorito nor?

- Nik uste bera aterako dela favorito. Azkenaldian nahikoa boom izaten ari da. Urtebete-bi urte daramazki eta hain azkar final batera iristea handia da.

- Gonzalezen jokoan zerk sortzen dizu errespeto gehien?

- Oso erasokorra da. Erasoa oinarritzen da bere jokoa eta gehienbat bere eraso eustera joan behar naiz. Oso sake arriskutsua dauka eta airez ere oso ondo dabil.

- Nola aurre egin?

- Ez dut uste bere jokoarekin obsesio-natu behar garenik. Ezkerra da eta nahikoa arraroa egiten da ezkerren aurka jokatzeko. Ni nire joko egitera joango naiz, ahalik eta ondoena, eta nirea egiten badut irabazteko aukera izango dut.

- Materialak zerikusi-rik izango al du?

- Ez dut uste. Berak nik baino pilota fuertexeago-ak aterako ditu.

- Finalaren ondoren zer?

- Parranda piska bat egin beharko dugu, galdu ala irabazi.

- Finala irabazten duena lehenengo mailara pasatuko al da?

- Erabakitze dago hori oraindik. Baina nik uste dut logikoa dela txapelduna pasatzea, eta txapeldunordea ere bai. Enpresei komeni zaien arabera egongo da erabakia.

- Enpresen arteko "borroka" ona al da zuentzat?

- Orain ondo dagoela uste dut, txapelketak elkarrekin jokatu eta urte guztian bakoitza bere aldetik ibiltzea. Pilotarientzat polita eta zaleentzat zer esanik ez.



- Azkenaldian estelarrak jokatzen ari zara. Noizko leku ziurra estelarretan?

- Azkeneko urte erdia nahikoa ona daramakit, partidua jokatzeko, izena daukan jende batekin. Final honekin moral piska bat hartuz eta lana eginenez, piskanaka gora joatea da asmoa. Asegarcen konpetentzia handia daukagu atzelarien artean.

- Profesioaletara igo zinenetik, zertan hobetu da zure jokoa?

- Nire ibilbidea nahikoa gorabeheratsua izan da. Lehenengo urtea debutatzeko ona egin nuen. Gero hirubate urtean, lesioak eduki ditut eta gora-beherak izan ditut. Orain lesiorik gabe eta jarraikortasunarekin ari naiz jokatzen eta ondo nabil. Kirol guztietan bezala, jarraipen bat behar da ondo aritze-ko.

- Zer daukazu hobetu beharra?

- Askok. Berez ez nago eginda, beste urte pare bat onak ditut saiatuz gero gora joateko.

- Final nagusiko favoritoa?

- Beloki nahikoa ondo ikusten dut. Eugi ere bai. Final handi bat izango da.

- Zer moduz dago Segurako harrobia? Eta

Goierrikoa?

- Urte askotako hutsune handia dago. Orintxe hasi gara zertxobait mugitzen. Mutiko batzuk hasi dira baina oso gazteak dira oraindik. Lehen denok pilotan aritzen ginen, baina orain kirol aukera handia dago. Futbolak indar handia dauka. Orain arte tradizio handirik ez duten herrietan lan polita egiten ari dira. Beasainen, Zaldibian, Lazkao... talde politikak dituzte. Seguran horien atzetik gabiltza.

Kirol eskolarraren barruan sartuta daude haur guztiak eta ez daukate aukerarik eskolaz kanpoko txapelketak jokatzeko, 13 bat urtera arte. Adin hori beranduegi da edozein kirolean lehiatzen hasteko. Haurrek motibatze-ko txapelketak behar izaten dituzte.

a u l i a
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

PSIKOLOGI KLINIKOA

AGI

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS-42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Auto EASO



labe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

Etxebizitzak

salgai

➔ Beasainen etxebizitza salgai. 60 m²koa. Bizitzen jartzeko moduan. 655 74 18 01.

➔ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

Negozioak

salgai

➔ Liburudenda salgai Beasaingo Igartza auzoan. Eskolako materiala, aldizkariak, ki-niela seilaketa, bideo-kluba, jostailuak... 943882209.

Bestelakoak

salgai

➔ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➔ Conver 13, karrodenda salgai. Bi abantzekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➔ Auto telegidatua salgai. Mega desert racer markakoa. Berria. 10.000 pezetan. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

➔ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezetan. 943 886521.

➔ Bixkientzako kottxe kapota oparitzen dut. Luzea eta bata bestearen parekoa. Euritarako osagarriak 10.000 pezetan salgai. Deitu eta ikusi inongo konpromezurik gabe. 943161631.

➔ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gauez telefono honetara: 943 161638. Etxeetara eramaten da.

➔ Komuneko armai-rua, ispiluarekin, argia eta entzimeraduna, txuria, salgai. Berri-berria. 943 888844. 7etatik aurrera deitu.

➔ Sarrerako altzaria salgai, ispilu bisilatua-ekin eta takiloi batekin. Zurezkoa. Berri-berria. 943 888844. 7etatik aurrera deitu.

➔ Comby markako frigorifikoa salgai. Urtebetekoa. 943

➔ Philips solariuma (8 lanpara) salgai. Tenporizadorea eta bentiladorearekin. Egoera onean eta ia erabiligabea. 617520981.

➔ 'Speed line' markako llantak salgai. 16 pulgadakoak. Separadore eta esparragoak ere bai. Prezio interesgarria. 943800384 (gauez), 629336182 (Beñat).

Animaliak

salgai

➔ Setter arrazako txakurkumeak salgai. 943887617.

➔ Boxer arrazako txakurkumeak salgai, pedigreearekin. 696057346.

opari

➔ Katakumeak opari. 600 648788.

➔ 4 katakume, 'lehoi txikia' itxurakoak, opari. 15 egun ingurukoak. 943 880402.

➔ Txakurra oparitzen da. Artzai eta arratoi txakurren nahasketa. 943886674.

Ibilgailuak

salgai

➔ Land Roverra salgai. 88 ligero diesela. BI-AC. 943801107 (Joxe).

➔ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

➔ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesela. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➔ Opel Kadett GT gorria salgai. Extrekin. SS-AF. Gauez deitu, 943-161941. Joseba.

➔ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. BI-BC matrikuladuna. 943801802. Xabier. 21:30etik 22:00etara deitu.

➔ Trialeko monty txirrindua salgai. 221 klasea. 943800454.

➔ Enduro-ko Kawasaki KDX 125 cc. motorra salgai. SS-AN. 92. urtekoa. Egoera oso onean. 656 727300 - 943882907. Ibon.

➔ Renault 21 autoa salgai, SS-AN. 943 653786.

Lana

➔ Neska euskaldun bat behar da asteburuetan kamarera bezala lan egiteko, jatetxe batean. 943880044.

➔ Sukaldari edo tabernari bat behar da Ordiziako taberna baterako. Euskalduna eta ahal bada goierritarra. 943160471.

➔ Neska bat eskaintzen da adineko jendea edota umeak zaintzeko. Interesatuok deitu 943885783 telefonora.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

DEKORATZAILEA
Goierri. Erref.: 32149/5

AUTO SALMENTARAKO KOMERTZIALA
Donostian. Erref.: 31909/2

KOMERTZIALA
ETT bidez Lasarten. Erref.: 30046/4

10 INKESTATZAILE
Donostian. Erref.: 31849/2

AUTOMOBIL MEKANIKOA
Beasainen. Erref.: 30785/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa. Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

ZINEA

GOIENIZ:

Maiatzak 16, 'Muñecos infernales', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

Maiatzak 18, 'La noche de los muertos vivos', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

Maiatzak 23, 'La noche del demonio', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

Maiatzak 25, 'Psicosis', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'La norma de la casa de la sidra'.

Larunbata 13: 19:30 - 22:15

Igandea 14: 17:00 - 19:30-22:15

Astelehena 15: 19:30 - 22:15

ORDIZIA:

'Erin Brockovich'.

Ostirala 13: 22:15

Larunbata 14: 22:15

Igandea 15: 19:30 - 22:15

Astelehena 16: 19:30 - 22:15

'Elmo en el pais de los gruñones'.

Igandea 15: 16:45

musika

ORDIZIA:

Maiatzak 13, Erga Omnes musika taldearen kontzertua, Barrena Kultur Etxean, 19:30ean.

Maiatzak 20, Fitter happier musika taldearen kontzertua, Barrena Kultur Etxean, 19:30ean.

Maiatzak 27, Araujo y los mecánicos musika taldearen kontzertua, Barrena Kultur Etxean, 19:30ean.

dantza

BEASAIN:

Maiatzak 12, Maiatza Dantzan: Transit taldearen 'Mandala' ikuskizuna, 22:15ean, Usurbe Antzokian. Sarrera: 1.000 pezeta.

ikastaroak

BEASAIN:

Maiatzak 16 eta 23, jailetako menuak sukaldaritza ikastaroa, Maite Imazen eskutik, 15:30ean eta 13:30ean, Bareak elkartearen.

antzerkia

BEASAIN:

Maiatzak 19, Txalo taldearen 'Dama eta Kardinala' antzezlan, 22:15ean, Usurbe Antzokian. Euskaraz. Sarrerak: 1.000 pezetan.

ORDIZIA:

Maiatzak 12, 'Poltsikoko Ikuskizunak' egitasmoaren barnean, Hika Taldearen eskutik 'Arraultza delikatuak' antzerki-lana, 22:30ean, Barrena Kultur Etxea.

BEASAIN:

Maiatzak 19, Txaro Ploren 'Izarren bidea: Santiagoko bideak Gipuzkoan barrena' diapositiba emaldia, Aizkorri Mendizale Elkartean, 19:00etan. Euskaraz.

ORDIZIA:

Maiatzak 16, Jon Arretxeren 'India eta Nepal' diaporama, Barrenan, 19:00etan.

AMEBI



Sagardotegia

Maiatzaren 12 goetik 14ra arte 15etik aurrera erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Kaxa erretena
- * Asteleheneko menu bereziak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

JUANKAR

- * Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- * Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



Ikasi-Makusi

Ordiziako Euskara Aholku Batzordeak antolatzen duen Ikasi-Makusi kultur programaren barruan, bi ekitaldi dau-de hamabostaldi hone-tan.

● **Maiatzak 16, aste-arte:** Jon Arretxeren 'India eta Nepal' diapo-rama, Barrenan, 19:00etan.

● **Maiatzak 24, asteazkena:** 'Porrotxekin merienda', 17:00etan, Barrenan.

erakusketak

BEASAIN:

Maiatzaren 12ra arte, Gar-cia Calvoren bangoardiako pintura-erakusketa, Aterpe tabernan.

Maiatzaren 1tik ekainaren 2ra arte, Martin Osinalde margolariaren panoramika erakusketa.

Maiatzaren 14ra arte, Jose Maria Azurmendiren pintu-ra-erakusketa, Usurbe An-tzokian.

Maiatzaren 19tik 28ra arte, Urbieta Arte Plastikoen Zen-

troan egindako pintura taile-rraren lanen erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Maiatzaren 28ra arte, Killy Beallen erakusketa, Barre-nan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Maiatzak 14, Donostia-Ulia-Donibane.

Maiatzak 21, Txindoki.



Bonsai erakusketa Olaberrian

Aralar Bonsai Klub Elkartek antolaturik, bonsai erakusketa izango da maiatzaren 20 eta 21ean, Iurreko ludotekan (J.M. Aristrainen ekonomatoa zaha-rrean). Bonsaiak ikusteko auke-ra izango da bertan eta baita azalpenak jasotzeko ere. Era-kusketako ordutegiak: larunba-tean 11:00etatik 14:00etara eta

16:30etik 21:00etara; eta igandean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Maiatzak 13-14: Atorrasagasti

(Bustuntza auzoan, Ordizia). 943 88 29 34.

Maiatzak 20-21: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Herri Urratsera autobusa

Maiatzaren 14an Senperen egingo den Herri Urratsera joa-teko autobusa antolatu du Beasaingo Ikastolak. Goizeko 9etan, Renfeko geltokitik aterako da autobusa. Txartelak salgai daude Ikastolan, helduentzat 1.000 pezetan eta ikas-leentzat 800enean.

IKASTEK AKADEMIA

KALITEA ETA PROFESIONALTASUNA

- ✓ Lehen eta bigarren hezkuntza
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Marrazketa teknika
- ✓ Larunbatetan klaseak

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN




LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA

Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitaratekoak...

Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844



LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia
barnetegia

XXVI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

6 IKASTORDU EGUNEAN, BARNETEGIAN NAHIZ KLASAK BAKARRIK

✓ Uztaila, abuztua: 6-12 urratsak

✓ Iraila: urrats guztiak

Alfabetatzen

Hizkuntz eskakizunak

Alfabetatze teknika

Sakontzen

EMAN IZENA

INFORMAZIO GEHIAGO Tel.: 943 88 92 31 - 943 88 92 32

HABEren dirulaguntzaz.

2000ko UDA



1973ko idiazabaldarren jaunartzea

Atzetik hasita, lehenengo ilaran, ezkerretik eskubira: Izaro Ormazabal, Eva Jesus Mujika, Itziar Telleria, Arantxa Mintegi, Gorka Mujika, Igor Iriondo, Xabier Iparragirre, Eneko Iparragirre, Axun Aranburu eta Josu Telleria. **Bigarren ilaran:** Arantxa Goikoetxea, Gurutze Unanue, Aitor Goiburu, Jorge Rodriguez, Joxe Juan Pedrazuela, Gorka Etxarri, Ramon Aldanondo, Ainhoa Iparragirre eta Ainhoa Aldasoro. **Hirugarren ilaran:** Aitziber Galparsoro, Mikel Imaz, Arantxa Lasa eta Salome Etxaluze. **Aurrealdean:** Iñaki Gonçalbes, Enara Hernandez, Jon Aldasoro, Aitor Urrestarazu, Pello Aizpurua, Jorge Gelbenzu, Estitxu Imaz eta Joseba Arrizabalaga.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:

- * **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- * **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- * **Hautzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- * **Kangureroak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

BEGIRISTAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA
Iturriotz Baserria IKAZTEGIETA

- Txotx denboraldia amaitu ondoren, asteazkenetik larunbatera irekita
- Eguerditan enkarguz
- Sagardoa botilan salgai
- Etxez-etxeko banaketa

Mobila 607365743
Erreserbak 943652837

Ford
MUJIK

BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Goierritarra

Azkenean helbide elektronikoa!!!

goierritarra@topagunea.com

tarjeta
gaztekutxa
txartela



Bizitza abentura handi bat duzu. Eta zuku osoa atera nahi badiozu, hementxe daukazu **Gaztekutxa**

Txartel berria. Doakoa da,

handik eta hemendik lasai asko ibiltzeko erabil dezakezuna, eta denetarik egin eta nahi duzun guztia erosteko ere aukera emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte, erosketak musutruk egin ditzakezu "Dohainik Erosi" sustapenaren baitan.

Besterik behar, ala?

www.gaztekutxa.net

e-mail: **gaztekutxa@kutxa.es**

900 40 41 42

Egin klik! hemen, abenturan jarraitu eta sariak irabazi ahal izateko.



gazte kutxa



belén

DEKORAZIOA

*Zure ezkontza zerrenda
prestatzeko gustoko gauza ugari
aurkituko duzu*

☎ 943 16 22 87

Urdaneta Kalea, 24 - 25

ORDIZIA

